

# ARRASATE <sup>PRESS</sup>

1993ko irriak 22

209. zenb.

Erreportaia  
**Txinako**  
kooperatibisten  
bisita




**DESPIDORIK**  
**ARNEKO KOMITEA**

**Lanuzte orokorra**

ARRASATEarrentzat  
urriak ere

**bizigarria**  
dirau



DATORREN AZAROAREN 4EAN  
BESTE SEAT IBIZA CL 3 ATEDUN BAT  
ZOKKETATUKO DUGU ARRASATEN

Eskura itzazu txartel zenbakiak **urriaren 1etik 30era** bitartean  
zure aurrezki-libretan aurreztuz.

**Kutxa**n aurreratzeak badu abantaila franko!



∴ kutxa ∴

gipuzkoa donostia kutxa

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



Tfnoa: 71 46 08

GATZAGAN

**VE ECUADOR**  
**Bidaiak**  
 Kontzeziño, 2  
 ARRASATE  
 Tfnoa: 79 14 06

**EPELDE**  
 argazki denda  
 Iturriotz, 24  
 ARRASATE  
 TFNOA: 79 19 71

**Memesa**  
 79 42 22

Aldizkari honek  
 Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
 Turismo Sailaren laguntza jaso du

# “Bota Piñue”

**N**ola egin aurrera Euskal Herrian Euskarazekin, Arrasaten? Ezinezkoa zen. Borondate ona ez zen nahiko. Urteak erreaz zihozten eta erabat kiskali aurretik, zass!!... ur baldekada ederra bota, txinpartok itxungi eta sute berria, AEDk esan ohi duen moduan, “euskararen garra”. Garra hori ari da orain Arrasate kiskaldu guran. Baina kontuz, ez gaitzan garraren lilurak erre. Garra irauarazi beharra dago, egurra bildu beharra dago. Horretan ari da AED, eredugarri gainera, eredurik espor-tatzerik ez badago ere (baina bai haietaz ikasi).

Ez bakarrik AED baina, Udalak ere —lehenbiziko urteetako salbuespenaz— bikain jardun du. Ika-mika txikiak izan arren ere (non ez?), alde biek jotzen dute ezinbesteko bien lana —elkarlana— eta fruituak ere begibistakoak dira. Arrasate Press eta ATB begibistako horren adibiderik aiposenak. Lan eredugarria, beraz, AED eta Udalarena, datuen zaparrada horren lekuko: euskararen erabilera mintzatua areagotu egin da azken urteetan (gaur egun % 22 ingurukoa); arrasatearron % 65ak ezagutzen du AED: aurtan ditu, beste euskarazko kultur jarduera batzuk kontuan hartu barik; 1987an Euskara Batzordearen (aurretik ez zen Batzorderik) aurrekontua 10 milioikoa zen, 1990ean 97 milioikoa, eta 1993an 171


milioikoa da; eta abar luzea da.

Alabaina, euskara, Arrasaten ere bai oraindik, uhartetxo bat da. AED buruzagitzan (horrela behar du?), uharte gehiago ere badago euskararen uharte horretan, Euskaltegiak, Ikastolak, Eskolak... Noraino eman dezake AED-Udala binomioak? Nola lotu uharte txiki guztien lana? Beharrezkoa al da lotze hori?

Eta Euskal Herri mailan, a ze uharte Arrasate! Astean zehar behintzat Bilbon bizi naiz aspaldi eta Euskal Herri mailako euskarazko komunikabide batean egiten dut lan. Irlaren ikuspegia areagotu egiten zait orduan. Zorionez, ugaltzen ari dira irlak. Edozein jardueratan arrakasta izateko, oinarritik —irakur herrietatik (eta herrietan herriarren-gan-dik)— hasta ezinbestekoa bada ere, nazio norabidea ere ahaztezina da.

Bestela non topatuko du hesia herrietako jardun bakarrak? Ez dago elkarlanik nazio mailan. Ondo da herriek aurre hartzea, hala behar du, baina argi eten handiegia sortzen bada. Oro har, gauza gutxi gara oraingoz, izango gara gehiago, bidea egokia da. Beraz, “bota piñue” eta aurrera!

**XABIER LETONA, ‘ATAXI’**



• ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 08 15  
**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingegniergo Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS  
 paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Luis Fernandez.

**ZENTRO  
PSIKOPEDAGOGIKOA**

**Zerbitzuak:**

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala  
(Psikomotrizitatea eta  
hizkuntz bereziera)  
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola  
arazoak, enuresia  
(Ohe bustitzea),  
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
Tfnoa: 79 48 77  
ARRASATE

**TTUKUN**

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

**ITSASKI**

**ARRANDEGIA**

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94



**JOSU**

**TXOKOLATEGIA  
KAFATEGIA**

Elkano, 25  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 03 66

••••

**IGPak eta  
Maltzaga-Urbina  
ardatza**

raileko bigarren astean hasi ziren Interbentzio Gune Partehartaileen aurrer-proiekturako aurkezpen bilerak. Eusko Jaurlaritzaren asmoa izanik Gizarteaz enpresak daraman lan hau nahiko ahul jaio da.

Pertsonalki IGPko proiektua azaltzeko bilera batean parte hartzeko aukera izan nuen eta esan beharra daukat galdera asko aidean gelditu zirela, Gizarteaz enpresaren arduradunek ez baitzuten jakin erantzunik ematen. Garbi dago Gizarteaz enpresa gizarte debata martxan jarri eta dinamizatzeaz arduratuko dela soilik. Beste guztia, hau da, Maltzaga-Urbina ardatzaren proiektuak, alegazioak, proposamenak eta zeresan guztiak Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Udalek, talde eta erakunde desberdinek eta afektaturiko biztanle eta pertsonen azaldu beharko ditugu. Beraz guztiz demokratiko eta garbia dirudien debate bat sortuko da.

Baina nola argudiatzen dituzte administrazioko buruek, jadanik prozedura martxan jarri baino lehena-go, beraiek eginiko adierazpenak? Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoa eta Arabako Foru Aldundiko bozeramaileek garbi esan dute Maltzaga eta Urbina lotuko duen ardatza, autopista bat izango dela (edo gehiago nahasteko pea-

jedun autobidea). Izena eta guzti jarri diote proiektua bultzatuko duen enpresari: "Deba Bailarako Autobidea SA".

Beraz, guk, kaleko biztanle arruntok, ze sinesgarritasun eman diezaiokegu planteatzen den gizarte debate honi? Ze punturaino ez da aurpegia garbitzeko manio bra bat?

Interbentzio Gune Partehartaile sistema hauek inposatuko zenbait proiektu eta egitasmoen inguruan sortzen diren aurkako iritzia, istiluak eta abarrak ez suertatzeko bide on bat izan daitezke. Inposaketak istiluak areagotzen ditu, eta hauek ahal den neurrian ebitatu behar direlakoan nago, baina arren, administrazio eta instituzioei eskatzen dizuet garbi jokatzeko eta ez dezazuela inposaketa prozedura demokratiko baten gerizpean izkutatatu.

Interbentzio Gune Partehartaileak: hiritarrek partehartzeko benetazko tresna bat? arazo zehatzei irtenbide eraginkorra bilatzeko medio bat? adostasun eta elkarrizketarako benetazko bide bat?

**ION LAZKANO  
(EGUZKI-KO KIDEA)**

••••

**EHUko tasa  
igoeren aurka**

**E**HUn ematen ari den tasaigoerari erantzunez eta gure aurkako jarrera azalduz, Eskoriatzako Irakasle

Eskolako ikasleok grebarekin bat egin dugu (urriak 20).

Jaurlaritzak esan bezala tasen % 6aren igoera hori (zenbait kasutan gehiagokoa) gehiegizkoa dela iruditzen zaigu. Arazo honek guri ere zeharka eragiten digulako azaltzen gara kexu.

Besterik gabe komunikatu honen bidez jendeari gure erabakia jakinarazi nahi dugu.

**ESKORIATZAKO IRAKASLE  
ESKOLAKO IKASLEAK**

••••

**Klaustroak  
itxita daude!**

**K**aixo: Arrasateko gazte talde bat gara. Geure iritzia eman nahi dugunez, gutun hau bidaltzea erabaki dugu. Gure galdera hau da:

— Zergaitik daude "klaustroak" itxita?

Erantzuna ez dakigu; ondorioak berriz, bai. Gu gazteok egunero edozein ordutan prest gaude "klaustrotara" joateko baina itxita daudenez, ez dugu lekurik joateko.

— Euria egiten duenean nora joan?

Mesedez eskatzen dizuegu "klaustroak" zabalik edukitzea. Gazteekin arazoren bat baldin baduzue, jakinarazi Telebistari edo Arrasate Press-i.

**KALISTRO-ZALEAK**

**HIES EKIMENA**

**Astelehen, astearte  
eta ostiral  
Setatik 8etara.**

**Tfnoa: 79 26 99**


**TXOKO**

**TABERNA**

**Eure berezitasunak pintxo eta  
mokau gozoak**

Otalora Lizentziatua z/g Tfnoa: 79 20 10

# Zelan dago Arrasateko egoera industrialala?



**Juan Antonio Torres**  
Jubilatua  
(54 urte)

Oso gaizki. Desmantelatzeko ari dira, langileak kendu eta ondoren guztia salduz.



**Lurdes Nafarrate**  
IKERLANeko langilea  
(45 urte)

Larritasun handia dago, eta ez dut uste sei hilabetetan egoera honetatik aterako garerik.




**Luis Velasco**  
Langabetua (26 urte)

Ez dut egoera oso ondo ezagutzen, baina ikusten dudana da, beti bezala botereak guztia manejatzen duela. Ondorioz besteok, hauek egiten dutena onartu beharrean aurkitzen gara.



**Mari Loli Olea**  
Langabetua  
(29 urte)

Ez dakit nolako egoera dugun herrian. Hala ere, ez da onia izango, krisiak toki guztiak ukitu ditu eta.



**Eladio Calvo**  
Jubilatua (58 urte)

Egoera kaotikoa da. Agintariak jakin beharko lukete honi erantzun bat ematen. Baina nire ustez, ordu gutxiago lan eginez, beharbada beste batzuentzat ere egongo litzateke lana.



**Judith Muruamendiaraz**  
Ikaslea  
(22 urte)

Oso tristea da, jendea kaleratzen ari direla ikustea. Txarrena da, gainera, ez dakigula egoera nola konpondu.



**Carlos Gonzalez**  
Langilea  
(40 urte)

Oso gaizki dagoela ikusten dut. Politikoei jakin beharko lukete egoerari erantzun bat ematen, besteok lan egiten bakarrik dakigu.



**Mari Paz Perez**  
Etxekoandrea  
(55 urte)

Egoerak txarrera egin du, animoa berreskuratu behar dugu. Herriak momentu zoragarriak ezagutu ditu, eta orain berriz, nola gauden!



## LAN MUNDUAN SARTZEKO ETA 3. ADINAREN ARRETARAKO IKASTAROA

### Ukanbeharrak:

- Emakumea izatea
- Eskola graduatua edo beratu lortzeko konpromezua
- Enplegu-eskatzailearen txartela

- famili eta gizarte heziketarako zentruak
- gipuzkoa donostia kutxaren gizarte ekintza
- santa teresa, 12 Tfnoa: 79 04 59 ARRASATE

LAGUNTZAILEA:  
EUSKO JAURLARITZA



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. .... 79 53 00  
 Igaluatoria ..... 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua ..... 79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara ..... 76 55 76

**DYA**  
 Antzuola ..... 76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) ..... 79 13 57  
 (Txanda hartzeko) ..... 77 03 46  
 77 07 21  
 Oñati ..... 78 08 52  
 Eskoriatza ..... 79 98 58  
 Aretxabeleta ..... 79 74 58  
 Aramaio ..... (945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantiak ..... 45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati ..... 78 04 11  
 Bergara ..... 76 14 69  
 Arrasate ..... 79 14 39  
 Aretxabeleta ..... 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udai taldea ..... 79 09 00  
 Udai taldeko suhiltzaile  
 burua ..... 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea ..... 78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udai zerbitzua) ..... 79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) ..... 79 05 81  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak ..... 79 12 22  
 P.E.S.A. .... 79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza ..... 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta  
 Erabiltzaileen Elkarte ..... 79 87 77  
 KIUB-OMIC ..... 79 51 55

**Monterongo liburutegia**  
 Monterron ..... 77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 22**  
 Egunez: Mozos, Pedro Deunaren  
 Gauez: Corcuera, Musakola.

**Larunbata 23**  
 Egunez: Camacho, Oxirondo.  
 Gauez: Irizar, Ercueta.

**Igandea 24**  
 Egunez: Corcuera, Musakola.  
 Gauez: Amezuza, Santamaina.

**Astelehena 25**  
 Egunez: Puy, Barrenkale.  
 Gauez: Morales, San Andres.

**Asteartea 26**  
 Egunez: Guallar, San Antonio.  
 Gauez: Morales, San Andres.

**Asteazkena 27**  
 Egunez: Estella, Matxiategi, 25.  
 Gauez: Azkoaga, Ferrerías.

**Osteguna 28**  
 Egunez: Mozos, Pedro Deunaren  
 Gauez: Español, Iturriotz, 17.

**22 OSTIRALA**

**ZINEA**  
 "Lorenzo's Oil". 7etan eta  
 9.30etan.

**MALTZAGA-URBINA**  
 Deba Bailararen alde eta auto-  
 pistaren aurkako herritarren  
 eta taldeen plataforma sor-  
 tzeko deialdi irekia. Berga-  
 rako Kultur Etxean, arratsal-  
 deko 7.00etan.

**HITZALDIA**  
 Komite Internazionalistak anto-  
 latuta. Gaia: emigrazioaren  
 arazoa. Hizlaria: Kebir Sa-  
 bar. Monterronen. Arratsal-  
 deko 7etan.

**DIAPOSITIBA EMANALDIA**  
 Hirugarren mundu taldeak anto-  
 latuta. Portaloian, gauez.

**PERUKO ARTISAUTZAREN SALMENTA**  
 Hirugarren mundu taldeak anto-  
 latuta. San Frantziskoko be-  
 heko lokalean. 5etatik 7eta-  
 ra, asteburu guztian.

**HAURRENTZAKO JAI ERRALDOIA**  
 AEDk antolatuta. Eskolaurreko  
 eta OHOk ikasle guztiek  
 parte hartuko dute. Kiroldeg-  
 gian. Aurkezlea, Asier Aran-  
 guren.

**ANTZERKIA**  
 "Entretijas". Markeliñe taldea.  
 Elorrioko Arriola aretoan,  
 gaueko 10etan.

**23 LARUNBATA**

**ZINEA**  
 "Máximo Riesgo". 7etan eta  
 10.00etan.

**ZER DA TRASPLANTEA?**  
 Trasplantatutako giltzurruna du-  
 ten edo laster trasplantea  
 edukiko duten arrasatearrek  
 beren arazoa azalduko dute.  
 Portaloian, goizeko 11etatik  
 eguerdiko 3ak arte.

**DIAPOSITIBA EMANALDIA**  
 Hirugarren mundu taldeak anto-  
 latuta. Portaloian, gauez.

**PERUKO ARTISAUTZAREN SALMENTA**  
 San Frantziskoko beheko loka-  
 lean. 12etatik ordubietara eta  
 5etatik 7etara.

**KONTZERTUA**  
 Bi talde ingeles: Coitus eta Guns  
 N' Wankers. Gaztetxean,  
 gaueko 9.00etan. Sarrera,  
 400 PTA.

**NAFARROA OINEZ ALTSASUN OSPATUKO DA IGANDEAN**

**24 IGANDEA**

**ZINEA**  
 "Máximo Riesgo". 7etan eta  
 10.00etan.

**NAFARROA OINEZ 93**  
 Altsasun.

**ARRASATE KIROLAK 1. KROSSA**  
 Irteera eguerdiko 12,30tan, Es-  
 koriatzako plazatik. Helmu-  
 ga, Arrasateko plazan.

**ZER DA TRASPLANTEA?**  
 ALCER elkarteak antolatuta.  
 Portaloian. Goizeko 11etatik  
 eguerdiko 3ak arte.

**PERUKO ARTISAUTZAREN SALMENTA**  
 San Frantziskoko beheko loka-  
 lean. 12etatik ordubietara eta  
 5etatik 7etara.

**KONTZERTUA**  
 KIEVeko irрати telebistako orkes-  
 tra eta Goikobalu abesbat-  
 zak, Beethovenen 9. sinfo-  
 niaren kontzertua eskeiniko  
 dute. Arratsaldeko 8etan,  
 Amaia antzokian. Sarrera  
 1.500 PTA.

**MANIFESTAZIOA BILBON**

**"Euskal Herria tortura-  
 ren aurka!" lemapean,  
 manifestazioa egingo  
 da Bilbon larunbat honetan. Arrasateetik auto-  
 busez joan nahi baduzu,  
 eman izena Irati, Biona  
 edo Etxerat tabernetan.  
 Autobusa arbolapetatik  
 aterako da, arratsalde-**



**25 ASTELEHENA**

ZINEA

"Máximo Riesgo". 7etan eta 9,30tan.

**26 ASTEARTEA**

ZINEA

"Máximo Riesgo". 7etan eta 9,30tan.

**27 ASTEAZKENA****28 OSTEGUNA****UDAL EUSKALTEGIKO OHARRA**

**Arrasateko udal euskaltegian 1. alfabetatze ikastarorako erreleboan dabilzanentzat plaza mugatuak daude. Ordutegia, goizez 10etatik 12etara eta arratsaldez 4etatik 6etara.**

**ZUZENDARI ETA BEGIRALE IKASTAROA**

Zuzendari ikastaroa egiteko beharrezkoa da 21 urte izatea, begirale tituloa izatea eta astialdiko praktikak egitea. Begirale ikastarorako 18 urte izan behar dira. Ikastaroak larunbat eta igandetan egingo dira. Zuzendari ikastaroko matrikula 30.000 PTA kostatzen da, eta begiralekoa 27.000 PTA. Matrikula egiteko epea, urriaren 30ean amaitzen da. Informazio gehiagorako dei egin 760819 telefonora.

Antolatzailea, Euskal Begirale Eskola. Laguntzailea, Bergarako Jardun elkarte.

**LAN MUNDUAN SARTZEKO ETA 3. ADINAREN ARRETARAKO IKASTAROA**

Betebeharrak: emakumea izatea, eskola graduatua edo berau lortzeko konpromesua, enplegu eskatzailearen txartela. Ikastaroa azarotik maiatzera emango da, astelehenetik ostegunera. Ikastaroaren edukina: lanerako norabide-tza, osasun gerontologikoa, anatomia eta patologia, psikologia, enpresa-sorkuntza... Argibideak eta izen emateak urriaren 26a baino lehenago, Famili eta Gizarte Hezketa-rako Zentruan edo 790459 telefonora deituta.

**KIROL POLITIKARI BURUZKO TOPAKETAK**

Deba Garaiko kirol politika egongo da aztergai, azaroaren 19an Oñatin. Gai hauek aztertuko dira: dirulaguntzak udal erakundetan, dirulaguntzak klub baten ikuspuntutik, dirulaguntza politika, Deba Garaiko kirol zerbitzuak... eta abar. Izenematea urriaren 29a baino lehen egin beharko da Oñatiko kiroldegian, 6.500 PTA ordainduz. Azaroaren 2tik aurrera eginez gero, 8.500 PTA ordaindu beharko dira.

**LIZARRA ELKARTEAREN DEIA**

Familiatan droga arazoak dituzten gurasoei zuzendua. Lizarra elkarteak, gurasoei leku bat eskeintzen die, hitzeging, elkarikusi eta ara-

zoari aurre egiteko. Elkar-atea, txindoki dorre behean, Dr. Bañez, 1-ean dago. Goizetan egoten da zabalik, 9etatik ordubatera.

**TXIRRINDULARITZAKO ZUZENDARI IKASTAROA**

18 urtetik gorakoentzat edo eskola graduatua dutenentzat. Azaroaren 6, 13, 20 eta 27an, goizez eta arratsaldez. Bergarako lanbi-

de hezkuntza eskolan. Prezioa 10.000 PTA. Izenematea Arrasaten Musakofa kiroldegian, urriaren 29a baino lehen.

“Tontakeria emango du, baina nik orain arte eserita eta kamara bakarrarekin egin izan dut lan beti. Hemen mugitu beharra dago, hainbat kamara eta jende asko dago, eta egia esan oraindik nahiko urduri nago. (...) Idaztea orain arte hobbya baino ez da, ez dut idazteko denbora askorik eta. Etorkizunean idaztera dedikatzea gustatuko litzaidake, baina bizi izateko adina ez duela ematen esaten dute. Eta denbora librea dudanean lagunekin egotea ere gustatzen zait, erlajatu, lana eta arazoak ahaztu, irten eta eurekin berba egitea”.

**Jon Andueza**



“(Lagun-Arori buruz) Baina jubilatuen keja, berriz ere, hauxe da: gu ezertarako kontutan izan barik guri dagozkigun erabakiak hartzen direla (osasun asistentzia eta pentsioak); kasu honetan erabat defentsarik gabe sentitu gara. (...) Lagun-Arok ezin du pertsona konkretu bat izendatu, ordezkarri bat, izen eta abizenduna, gure interesak hurbilagozik zainduko dituen eta gure kontsulta eta galderak bidera ditzana?”

**Rabiel**



Erakunde batek erdaraz funtzionatzen badu, oso zaila da erakunde horretan euskaraz jardutea... Eta erakundea, nork lotzen du erakundea? Zuzendariak lotzen du eta politikoez lotzen dute. Alferrik da legeak egitea legea egiten duenak ez badu betetzen... Erantzukizuna ez dute politikoez bakarrik, guk ere bai; gure elkarteetako zuzendariak, kirol edo gastronomia elkarteetakoak, ikastoleetakoak, guk aukeratu behar ditugu euskaldunak. Aldarrikatu beharko genuke zuzendariak jakin behar lukeela euskaraz irakurtzen eta idazten. Uste dut hau derrigorra dela aurrera egitea posible izango bada, bestela baldintzatzen gaituzte erdaraz egitera.

**Jose Mari Mujika**, AEDko lehendakaria  
93-10-18 Eibarren, mahainguru batean.

## Amaia antzokiak martxa honetan jarraituko du?

**B**este egoera baten aurrean gaude. Amaia antzokia berriztu egin dugu eta egin diren moldaketen bidez, ekintza desberdinak egiteko toki egokia dugu. Alegia, joan zen asteburuan izan genituen tamainako kontzertuak egiteko aukera dugu orain.

Baina ez dezagun pentsa, joan zen asteburuan eduki genuen eta asteburu honetan izango dugun bezalako kontzertuak hilabetero errepikatuko direnik. Maila honetako ikuskizunak, dudarik ez izango direla, baina urtean behin edo birritan. Hala ere, urte bukaera arte baditugu hainbat ekintza antolatuta: antzerki emanaldiak, nazioarteko akordeoi lehiaketa garrantzitsuak...

Seguruena hilean behin edo, Amaia antzokian antzerki eta musika emanaldia izango da aukeran. Beste ekintza batzuk ere izango dira, dantza ikuskizunak... Gainera inguruan antolatzen diren ekintza desberdinak ere kontutan izan behar ditugu. Donostian Maiatza Dantzan antolatzen badute, ba geu ere hauen emanaldi batzuk ekartzen ahaleginduko gara. Herriko taldeen lanek edo herriko jendeak bultzaturiko ekintzek ere izango dute tokirik.

Bestalde, urtarilerako zinema jartzeko asmoa ere badugu. Noski, momentuan merkatuan dauden filmek ez ditugu emango, baina pelikula onak ekartzeko asmoa badugu.

Bukatzeko, astean zehar ere entsaiuak egiteko aukera izango da. Kanpotik etorri dira hainbat talde Amaiara euren obrak prestatzera eta orain arte egin dugun bezala, herrikoei ere emango diegu aukera.



**Jon Garai**  
Kultura teknikaria

• **Txitxinpe** •  
Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak  
Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



## ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA

**Liburuak eta diskoak**

Ibargarai, 12 BERGARA  
Tfnoa: 76 40 50

## BURGALES JATETXEA

**Jaki goxoak eta giro atsegina**

**Durana, 12  
ARETXABAETA**

## Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



**Auto barruan hilda**

Aretxabaletako bizilagun bat, Juan Maria Akizu Bilbao 42 urtekoa, hilda azaldu zen Arrasaten auto baten barruan joan den ostiral goizean. San Andres auzoko Escatu eraikuntzako aparkalekuan egoki aparkatuta zeukan hildakoak bere autoa, eta barruan hilda azaldu zen bera, arrazoi naturalengatik antza, bihotzekoak jota edo. Dirudienez, ezbeharra bezperan gertatu zen, baina inork ez zuen igerri gizona hilda zegoenik. Parean lanean ziharduten langile batzuek ikusi omen zuten, baina lotan zegoela edo pentsatu omen zuten.

**Kooperatibetako langabetuak**

Kooperatiben taldean urte amaieran mila pertsona langabezian izango direla argitaratu zuen Bilboko El Correo Español egunkariak joan den astean, baina Mondragon Korporazio Kooperatiboak, MCCk, berehala gezurtatu zuen albistea. MCCk zehaztu zuenez, urte amaieran 150 persona izango dira langabezian, ez 800 edo mila. Guztira, 25.300 pertsonako plantila dauka kooperatiben taldeak. Kooperatiben alorrean, Lagun-Aro aseguru etxeak bideratzen ditu langabezia subsidioak. Egunkari berak zioenez, MCCko zuzendaritzak langile ebentual askori

**UCEMen gaineko plenoa**

Pleno aretoa jendez gainezka egon zen joan den ostiralean, UCEM taldeko enpresen egoera dela eta konbokatutako pleno berezian. Pertsona asko kanpoan gelditu behar izan ziren, eta plenoa bera oso laburra izan zen: bozketarik ez zen izan, alderdi politiko guztiak ados zeudelako. EAJK adierazi zuenez, eurek nahiago zuten asteazkeneko protesta egunean bi orduko greba egin barik, bi lan-orduko soldataren bilketa proposatu izan balitz, dirua afektatutako langileei emateko. Langile ordezkari batek elkartasun ekonomiko hori eskertu zuen baina koxka ez zela hori gehitu zuen. Mozioa onartu eta gero, publikoak txaloka agurtu zuen korporazioa, nahiko gauza bitxia Arrasateko udalbatzetan.

kontratuak ez berrizteko gomendatu die kooperatibei berriki. 300 bat lanposturengan izango luke eragina honek.

**Autopistaren aldeko plataforma**

Maltzaga-Urbina autopista egitearen aldeko plataforma hiritar bat aurkeztu zen joan den ostiralean Eibarren. Talde honen helburua, administrazioa Ardatza lehenbailehen garatu eta egitera bultzatzea da, eta zentzu horretan biderik onena benetako

autopista bat dela uste dute, "ez dadin txapuzarik egin, edo proiektua ahaztu". Mugimendu honen sustatzaileen artean, PSE-EEko eta EAJko Eibarko jende ezaguna dago, besteak beste Aurora Baskaran Eibarko alkatesa-ohia. Autopistaren aldeko plataformak ez omen dauka Interbentzio Gune Partehartzailean (IGP) inizatibarik aurkezteko asmorik, baina Guneen ideia positibotzat jotzen dute, ideiak argitzeko balioko duelakoan. Beren Plataforma Deba Garaian aurkezteko asmoa ere badaukate.

**Asteburu musikala**

Bakoitzak bere doinuan, baina nahiko arrakasta izan zuten asteburuko ekitaldi musikal desberdinek. Larunbatean, La Banda Tropera del Riok kontzertu nostalgiko samar baina polita eskaini zuten kiroldegian. Igandean, arrakasta handia lortu zuten Amaia antzokian Errusiako Orkestra Nazionalak eta Ivo Pogorelich pianojole kroaziarrak. Pogorelichek pieza zail samarrak aukeratu zituen bere emanaldirakon, baina akaso kontzerturik dotoreena orkestra errusiarrek eskaini zuen, eta talde horretan bereziki bibolin solistaren abileziak entzuleak txunditu zituen. Gaztetxean, bestelako giro batean, Short Fuse talde estatubatuarren Louisianako blues-a dastatu zuten ikusleek.

**JAIOTZAK**

- Lara Lobato Rivero. Urriaren 2an.
- Maria Azkarate Garcia. 8an.
- Iñaki Velasco Garai. 12an.
- Julen Mondragon Varela. 13an.
- Alex Aranburu Goirizelaia. 14ean.
- Agoitz Garcia Olalde. 15ean.

**EZKONTZAK**


- Fernando Etxabe Arana & Begoña Lejardi Urkidi. Urriaren 12an. Zibilez.

**HILDAKOAK**

- Juana Cledou Cantero. Urriaren 13an. 81 urte.
- Maria Angeles Zengotitabengoa Zenitagoia. 13an. 52 urte.
- Juan Maria Akizu Bilbao. 15ean. 42 urte.
- Vicenta Balanzategi Larrañaga. 20an. 79 urte.

**GORKA**

ILEAPAINDEGIA

**SOLARIUMA**Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 78**ARTOLA  
KOMERTZIALA**Zerkaosteta, 3  
Tfnoa: 79 14 40  
ARRASATELOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE


HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.  
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE



JUAN RAMON GARAI \*

## Sistema honetan dago kakoa

**Sistema** kapitalista honen bela beltzak, bere hatzaparretan harrapatu gaituelako bizi izan ditugu Arrasaten, aspalditik ezagutzen ez genituen mobilizazio solidarioak.

— Gizarte baten funtzionamendua benefizio haundiena lortzean oinarritzen denean, eta lege guztiak helburu horren alde daudenean.

— Gobernuaren tesiak enpresarienen berberak direnean.

— Gobernuaren politika ekonomikoa desastre hutsa delako, ekonomia gero eta okerrago dabilenean.

— Gobernuak gizartearen gehiengoari, langabe, pentsiodun eta langileei egin nahi dizkien erasoak (langabetuei ematen zaizkien laguntza, pentsio eta soldaten murrizketa, sektore horien erosketa ahalmena gutxiagotuz) oso eragin gogorak ekarriko dizkio ekonomiari eta langabezia gehitu egingo da.

— Ikusten dugunean gobernuaren helburua ez dela langabeziaren aurka egin eta enplegua sortzea, baizik eta gizartearen sektore kaltetuen errentak kapitalistei ematea.

Arrasateko kapitalistak beste hainbeste ari dira egiten, euren irabaziak langileen kontura gehituz, berdin zaielarik, lanpostu denak pikutara bidaltzea.

Krisia delako honen aurrean, batzuk diote, klase enpresariala zainduz aurrera aterako gerala, guk beste logika bat aldarrikatzen dugu, krisia zeinentzat?

Izan ere, dagoen aberastasuna hobeto banatuta egongo balitz, gehiengoarentzat lana egongo litzateke eta, edozein kasutan ere, langabezian konponbide bat aurkitu arte, langabetuak gizakiak direlako, badute jadanik soldata unibertsala jasotzeko eskubidea. Gure gizarte honetan badago egon, na-

hiko diru horretarako, kakoa da aberastasun horren banaketa.

Honek esan nahi du "progreso" aren kontzeptu bera jarri behar dugula zalantzan, kontsumismo eta despilfarroaren ideari, pertsonen ongi izate eta elkertasunaren ideia kontrajarriz. Beste alde batetik, munduko herrialde aberatsak, herrialde pobreen kontura bizitze horrekin ere apurtzea derrigorrezkoa da.

Egoera honi ezin zaio herri batetik bakarrik erantzun orokor bat eman, baina ez litzateke zilegi ezintasun honen atzean pasibitatean murgiltzea. Ba da posible zeozer egitea eta egun haue- tan ari gara egiten.

Gure ustetan, arazo honi erantzuteko modurik onena, organizazio sozialak sortzea da, herri bakoitzean era guztietako pertsonak bilduz alegia: Sindikatu, Konseilu Sozial, langabetu, merkatar, ikasle, tabernari...hau da, gizarte honetako sektore jipoituenak, mobilizazio solidarioen bitartez gizrteak protagonismoa berreskura dezan.

Bide honetan urrats batzuk egin ditugu; jo dezagun ba, denok bat eginda aurrera, horrela ez gara berriz ere zerotik hasiko.

\* CC.OO.KO SINDIKALISTA

## USTEAK USTE

**Nork esango zuen. Duela 10 urte hasi zen martxan eta gaur egun duen martxa. Bai, AEDz ari naiz. Ez naiz ni orain hemen AEDren historia egiten hasiko (nik baino hobeto ezagutzen duenik bada), baina atzera begirada bat botatzen badugu, denok onartuko dugu asko egin dela. Izan ere, geure buruari galde- tzen badiogu Arrasaten euskararen egoera berdina izango ote zen AEDrik gabe, erantzun argi eta garbi ezezkua izango litzateke. Baina hala eta guztiz ere, sarri neure zalantzak izaten ditut, egiten duen guz- tiak ba ote duen gizar- tean, kale mailan, behar adina islada. Hau da, zein neurritan nabaritzen da kale mailako euskararen erabilpenean? Esan bezala, asko egin da, baina badago oraindik zer eginik, eta arlo hau izan daiteke aztertu eta landu beharreko bat. Guzti hau esan ondoren, gogorarazi nahi dut egindako guztia ez dela berez egin, hasieratik gaur egunerarte aritu den jendearen lana da, proiektuan sinetsi duen jendearen lana, erasoei aurre egiten jakinez, bidea irudimena erabiliz eginez, eta Arrasaten geratu barik, beste herri batzutan proiektuaren berri emanez. Guztioki zorianak.**

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

# Gida Komertziala



ARKO: ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE



Asteazkeneko manifestazioaren burua; atzetik jendetza galanta zectorren.

## Industriaren aldeko lanuztea ia orokorra izan zen

Sindikatuak asteazkenerako deitutako bi orduko lanuzteak oso erantzun zabala izan zuen Arrasaten, orokorra ia. UCEM taldeko enpresetan greba egin zuten, eta kalean mobilizazioak eta bide-mozketak egin zituzten. Herriko gainontzeko lantegi gehienetan, denda eta zerbitzuetan, bi orduko geldialdia egin zen. "Arrasatek nahikoa esan du", adierazi zuten arrasaldeko manifestaldiaren ondoren langile ordezkariak. "Nahikoa hainbeste espekulazio eta lapurretari".

Roneoko gatazka, bertako 74 langileren kanporatzea, izan zen sindikatuak deitutako protesta ekintzarako azken arrazoia, baina ez bakarria. Transformados Metalicos eta Cerrajera enpresei ez die alternatibarik eskaintzen UCEM taldeak. Langileek diotenez, UCEMen estrategia lantegiak lehenbailen gainetik kentzean datza, ondoren terrenoekin espekulatzeko eta etekina beste finantza-joko batzuetan inbertitzeko (kasi-noetan eta, adibidez).

Arlo guztiek hartu zuten parte lanuztean.

Banku sukurtsaletan 1 etan itxi zuten, lantegi askotan arrasalde hasierañ, udaletxean 4etan, dendetan 6etan. Ikastetxeen artean, Eskola Politeknikoko 200 bat ikaslek irten eta *sentada* egin zuten udaletxean. Adibide bat jartzeko, Fagorreko sekzio guztietan aterra zen lanuztearen aldeko bozketa, zerbitzu orokorretan ezik. Deialdiak udal korporazioaren babesa ere bazeukan.

Arrasaldeko manifestazioa Arrasateko azken garai hauetako jendetsuenetarikoa izan zen. Hura amaitu zenean, antolatzaileek komunikatu bat irakurri zuten. Bertan azpimarratu zuten, protesta eguna beharrezkoa zen "ekonomi sistema honek langabezia eta emigrazioa besterik eskaintzen ez dielako arrasatear belaunaldi berri". Sindikatuen iritziz, asteazkenekoa moduko "solidaritate eta mobilizazioak jarraitzeko ereduak dira".

Roneoko auzia, bitartean, zintzilik dago oraindik. Donostiako lan delegatuak hurrengo astean eman dezake jakitera kaleratzeen gaineko bere erabakia.

•••••

### • Errepideetako • arriskua

Gipuzkoako Diputazioak probintziako errepideen arrisku maila neurtu du. Oro har, errepideen arrisku maila jaitsi egin da. Errepide nagusien konparaketa eginez, Deba Baijara zeharkatzen duen errepideak beste batzuk baino istripu-arrisku maila txikiagoa dauka. Gure errepidearen arrisku maila 12 puntukoa da (kalkulu zail baten arabera kalkulatzen da), eta aldiz Nazional Iekoa 32 puntukoa da, edo kostaldeko errepidearena 33 puntukoa. Dena den, badaude pare bat puntu beltz gure inguruko errepideetan, istripuak sarri samar gertatzen diren lekuak, bata San Prudentzioko bidegurutzea da eta bestea Arrasateko Aretxabaletarako tartea.

### Merkataritzarako laguntza

Eusko Jaurlaritzak Merkataritzaren Laguntza Teknikorako Kabinete bat dauka Arrasaten, herriko eta inguruko komertzianten eta dendariak laguntzeko, eta Mankomunitatean du egoitza zerbitzu honek. Berriki, Kabinetea atenditzen zuen pertsona aldaketa egon da, Olatz Muruamendiarazek, orain arte postuan zegoenak, Victor Manuel Perez Egurenin utzi dio tokia. Victor Manuel Perez astearte eta ostegunetan egongo da mankomunitateko bulegoan, goizetan.



PEUGEOT · TALBOT

Salmenta eta  
zerbitzua

IBABE  
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Monte  
taberna


Maalako errabala, 11  
Tfnoa: 79 20 56

ARRASATE  
PRESS

HARPIDETZAK



77 08 15



Birziklatzeko gaien bilketa zerbitzua izango da martxan jarriko den proiektuetako bat.

## Arrisku soldata planean bost proiektu garatuko dira

Arrasateko udalak bost proiektu aukeratu ditu arrisku-soldata programarako, deialdira aurkeztu ziren hamabien artean. Honako proiektuak dira:

- Enpresa txikientzako informatika zerbitzua
- Itzulpengintza zerbitzua
- Birziklagaien bilketa
- 2. eskuko gauzen konponketa eta salmenta
- Grabaketa estudioa

Deialditik kanpora geratu diren proiektuen artean, orein haragiaren produkzioa edo turismo zerbitzu bat aipa daitezke. Arrisku-soldata plangintzaren bidez, enpresa edo lan-proiektu berri hauei martxoaren 31a arte

laguntza eskainiko zaie, gero behin gorpuzturik beren kasa segi dezaten. Aukeratutako bost proiektuak bi pertsonakoak dira, eta laguntza honela gauzatuko da: udalak pertsona horietako bat kontratatu egingo du; horrez gain, LKS enpresaren bitartez aholkularitza zerbitzu bat jasoko dute (% 30 eurek ordainduko dute, % 70 udalak), eta azkenik, lokala izango dute eskura lehengo IMiko bulegoetan.

Iaz izan zen arrisku-soldata programa lehenbiziko aldiz sustatu zen urtea. Lau proiektu finantzatu ziren. Bat enpresa bilakatuta dago gaur egunean, beste bi lan berean ari dira enpresa bihurtu barik, eta laugarren proiektuko pertsonak beste lan bat aurkitu du.

## Euskalaneke klaseak

Lan munduan euskara bultzatzeko Euskalaneke plangintza, martxan hasi da aurtengo ikasturtean ere. Hasi dira klaseak dagoeneko, ohizko kooperatibetan, eta talde berri bat eratu da Fagor Elektratresnetan. Lantegi gehienetan, bertan ematen dituzte klaseak, lanorduetatik kanpo. Kanpaina honetarako sindikatuen laguntza izan du Euskalaneke sustatzaileak, AEDk, baina lankidetzaren horrek ez du eman espero zen emaitza, sindikatuak nahiko okupatuta ibili direlako arazo laboraletan.

## Berun kutsadura

Deba Garaiko bi lekutan berun kutsadura gertatzen dela salatu du Eki talde ekologistak. Berunak kutsatutako eremuen arazo hau Gatzagako Bentako eta Txopekuako tiro-zelaietan gertatzen omen da, bertan gastatzen diren kartutxoetako berunaren eraginez. Txoriengan eragin zuzena du berun kutsadurak, eta ehizaren ondorioz, gizakiarengan ere izan lezake eragina.



# LASAGABASTER

**ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Kontrabandoko tabako amerikarreko kajetila bi.

## Kontrabandoko tabakoaren kontrako kanpaina tabernetan

Hazienda ministerioak Arrasateko taberna biri isunak jarri dizkie kontrabandoko tabako amerikarra saltzearen eta gainontzeko taberna guztiei ere gutun bat bidali die, tabako ilegala saldu ez dezaten. Bestalde, joan den astean bi pertsona atxilotu zituen Arrasaten Ertzaintzak, ustez kontrabandoko tabako hori ekartzeagatik.

Atxilotuei (tolosar bat, ustez tabakoa zekarrena, eta arrasatear bat, tabernetan banatzen zuena) miloi bat PTA baino gehiagoko balioko tabakoa atzeman zieten kajetilatari. Atxilotetak Ertzaintzak egin zituen arren, polizia autonomoak ageriko delituetan baino ez du parte hartzen auzi honetan.

Tabernetako isunen ardura Madrilgo Hazienda ministerioaren esku dago.

Tabako ilegalaren salmentak, milaka eta milaka miloitako galerak sortarazten dizkio urtero estatuari. Ameriketatik zuzenean ekarritako tabakoak ez du inolako zergarik ordaintzen eta horrenbestez estatuak ez ditu behar lituzkeen hainbat miloi jasotzen. Tabako ilegalaren aurkako jarrera, betidanikoa izan bada ere, azken hilabeteotan bereziki indartu dute kontrabandoaren aurkako politika. Tabakoa, barra barra sartzan omen da kostaldeko herrietatik barrena, eta bertatik, tabernen bitartez erosleek eskuetara ailegatzan da.


### Kapirixo elkarteak Arrasaten

Kapirixok, Deba Garaiko ondare kultural, artistiko eta historikoa zaintzeko elkarteak, egin du dagoeneko bilera bat

Arrasaten. Irailean eratu zen Kapirixo taldea Bergaran egindako ekitaldi batean, eta orduan herriz herri aurkezpenak egiteko eta herri bakoitzean taldeak eratzeko asmoa azaldu zuten. Arrasateko lehen bilerara dozena bat lagun azaldu ziren.

Kapirixoko ordezkariak elkartearen egitasmo eta filosofia esplikatuz zieten, eta hurrengo baterako bilera zabalago bat egitekotan geratu ziren. Azaldutako pertsona bakoitzak beste bi lagun erodateko konprometuzua hartu zuen, era horretan Arrasaten ere talde sendo bat egin ahal izateko, zer egin ugari baitago. Orain arte Oñatiko jendea da batipat elkartean dabilena.

Herriz herri jendea bildu eta gero, datorren azaroaren 5ean elkarte berriro bilduko da Bergaran, estatutuak onartu eta ofizialki lanean hasteko jada.



## URONDO elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa


Tfnok: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



Lehenengo lan bat egin behar izan zuen, ondoren TVEko lehiaketara joan zen. Baina azkenean **Ivan Sanchezek**, 17 urteko arrasatearak "Quetzal" bidea egiteko txartela eskuratu zuen. Abuztuaren 22an ateratu zen

eta urriak 12an bueltatu zaigu, Puerto Rico, Santo Domingo, Honduras, Guatemala, Mexiko, Guadalupe, Portugal eta Espainia bisitatu ondoren. Zure abenturak ezagutzeko desiatzen gaude!



**Tomás Larrañaga** antzuolarra denetik saltzen hasi da Arrasateko azoka plazan: lekak, kipulak, letxugak, tomateak... Baina Tomasenak desberdinak dira, biologikoak dira eta. Barazkiak satsaz

hasten ditu eta inoiz ez die ongarririk botatzen. Horregatik omen dira besteak baino elikagai hobek. Bere produktuek, gainera, "CRAE" elkartearen egiaztagiria daude.

**San Frantziskoko Kalistroak aspalditik dira gazteen topaleku. Baina azken asteotan horietarako sarrera itxita egoten dela eta, kexu dira**

**gazteak. Elizan sitsaren kontrako neurriak hartzen ari direla eta, eliza bezala itxi egin da kalistroa ere. Datorren astetik aurrera irekita**

**egongo da astegunetan, baina asteburuetan itxita izango da aurrerantzean, Frantziskotarrek hartu duten erabakibatzen ondorioz.**



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan  
ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE  
Goizeko 9etatik 1a arte  
TfNOA: 79 19 21

.....  
**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**  
.....



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

Hona hemen, euskara hitzarmena adieraziko duen logotipo berria.

Batzuk alambrada baten itxura duela diote, beste batzuk, berriz, japoniar letren tankerakoa dela. Egileek, berriz, Iñigo Zabalak eta Jone Aznarrek ulerterreza den logotipoa dela uste dute.

Zeuk zer uste duzue?



145086 zenbakia inoiz ez zaio ahaztuko **Gloria Carbayori**. Izan ere, zenbaki hori

edukitzeagatik, Kutzak zozketatu zuen kotxearen giltzak berari eman zizkioten. Etxean


lehenago ere nahikoa kotxe bazuten, baina halako bati azkar egiten omen zaio.

## IZEN PROPIOAK

● **Amaia Bengoa**, 26 urte, marrazki eta pintura irakaslea izango da. Amaia bergarakoa da eta arte ederretan lizentziatua. Aurrez San Viator ikastolan lan egin du.

● Arrisku soldata emanez, pertsona hauen proiektuak finantzatzeko dituzte udalak: **Fede Aranbarri** eta **Jose Mari Etxagibelena**, **Jon Goikolea** eta **Juan Jose Garmendia** eta **Joseba Garitonaindiarena**, **Iñaki Bengoa** eta **Pedro Jose Aldaberena** eta **Rosario Torres** eta **Begoña Borgerena**.

● **Eneko Urrizalki Jaurregi**, 22 urte, ingurugiro eskolako bekaduna izango da. Eneko arrasatearra da eta irakasle eskolan bigarren kurtsua egiten ari da.



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118

OSORIK  
PUB

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE



Ferrerias. 79 87 62

# RKUZ

# Sukaldeak

**FAGOR** 

Sukalde integratuak

Banatzaile Ofiziala

Mitarte, 3  
Tfno-Fax: 77 04 55  
ARETXABALETA




## ALTZARIAK

ETXEKO ALTZARIAK  
DISEINUA - APAINKETA

Araba Etorbidea, 20  
Tfno - Fax: 79 23 51

Aretxabaleta

## ELEKTROGAILUAK

TV - BIDEOA - SOINUA  
**expert**  Banatzaile ofiziala

Asuncion, 1  
Tfnoa: 79 10 97



# Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



## Denboraldiko lehen polemika eta zigorra

Txapelketaren laugarren jardunaldia burutu denean, azaldu da dagoeneko aurtengo lehenbiziko polemika: talde bati, bi puntu kentzea erabaki dute antolatzaileek. Corinto Taberna da zigorra jaso duen taldea, talde berria gainera. Guk argitaratzen dugun sailkapenean, puntu horiek kendu gabe azaltzen da Corinto, eta au-

rrerantzean ere hala azalduko da, lehen fasea amaitu arte ez baitituzte antolatzaileek taulak zuzenduko, emaitza totalak ez nahasteko. Izan kontuan, beraz, aste honetakoan eta hurrengokoetan, sailkapenean zuzenketa hori egin beharra dagoela. Datu triste hau alde batera utzita, gauzak aurrera doaz arazorik gabe.

Zarugalde  
kalean...

BRANKA  
taberna

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	3	3	0	0	16	3	6
ARLUTZ	3	3	0	0	15	3	6
SUM. UGARTE	3	3	0	0	17	5	6
JEY JULIWER	3	2	1	0	12	6	5
BERANGO SUK.	3	2	0	1	11	6	4
ANBOTOSTE KT	3	2	0	1	10	6	4
ZOTZ	3	2	0	1	11	13	4
KOKKAS	3	1	1	1	9	8	3
BIZKORRAK AVE.	3	1	1	1	9	9	3
RESAKAS	3	1	1	1	10	11	3
IKATZ	3	1	1	1	9	12	3
EUSKAL INDARRA	3	1	0	2	7	8	2
ALLA KUIDAUS	3	1	0	2	9	13	2
SOKOAKOAK	3	1	0	2	9	14	2
WHISK. LINDE	3	1	0	2	7	11	2
BAYERN LENITZ	3	1	0	2	5	8	2
ETXE MOBILIARIO	3	1	0	2	6	14	2
FRAGUEL GOL	3	0	1	2	3	5	1
UGLYS TXINATO	3	0	0	3	7	15	0
AUF DEM KOFFER	3	0	0	3	3	15	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	3	3	0	0	30	9	6
LEINTZ GARAGAR.	3	3	0	0	16	5	6
ZULOAK	3	3	0	0	15	10	6
IRATI STS	3	2	0	1	12	5	4
BUKANAK	3	2	0	1	12	6	4
BETRAYER	3	2	0	1	16	9	4
ARRASATE KIR.	3	2	0	1	9	7	4
NOTXINGAN FLO.	3	2	0	1	12	10	4
DANOK LAGUN	3	1	2	0	7	6	4
ALPEN KRAUSSER	3	2	0	1	16	12	4
MONTERREY Z.B.	3	1	0	2	11	9	2
FANCY BOIS	3	0	2	1	7	9	2
TRONKOTEAK	3	1	0	2	11	16	2
GANBELAS	3	1	0	2	6	9	2
KOPYPREST	3	1	0	2	8	13	2
OOOLE	3	1	0	2	6	10	2
EXC. LETE	3	0	1	2	6	16	1
DIEGO ANTONIO	3	0	1	2	5	14	1
OJO AVISORE	3	0	0	3	10	18	0
ATXANTE KE TE...	3	0	0	3	7	27	0

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOSFOROS	3	3	0	0	25	4	6
NABARROS	3	3	0	0	10	4	6
AR. KRISTALDEGIA	3	3	0	0	17	7	6
LOS HEREDIA	3	3	0	0	12	5	6
HIREI	3	2	0	1	17	14	4
KIRTEN TROPEL	3	2	0	1	10	9	4
SIBILIUS ROVER	3	2	0	1	6	6	4
FOTO IMAGEN	3	1	1	1	13	9	3
MIKELOS	3	1	1	1	11	10	3
LOS DALTON	3	1	1	1	14	14	3
LEYA	3	1	1	1	13	15	3
PEPELUS	3	1	0	2	9	9	2
MOTZ	3	1	0	2	9	10	2
ADELAIDA HAIZEA	3	1	0	2	8	10	2
TXOKO TABERNA	3	1	0	2	8	10	2
BORROCKN ROLL	3	1	0	2	7	22	2
KAKAJAURI	3	0	1	2	8	11	1
MZK GANBELAS	3	0	1	2	7	14	1
POTROSORRI	3	0	0	3	5	10	0
CORINTO TABERNA	3	0	0	3	8	24	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
AC SURCOS	3	3	0	0	18	5	6
ZULUS	3	3	0	0	21	8	6
KRISKIBALDA	3	2	1	0	10	2	5
CARBUROS	3	2	1	0	19	5	5
NUEVO TABERNA	3	2	1	0	13	4	5
REVOLUTION ROCK	3	2	0	1	15	7	4
POTROAK LORAT.	3	2	0	1	15	11	4
LASO ARREGI	3	2	0	1	10	6	4
TOVARITX	3	2	0	1	10	9	4
GURE LEKU	3	2	0	1	10	11	4
TUTTIFRUTI	3	1	1	1	19	14	3
BODISCA	3	1	1	1	11	9	3
FRANCISCANERR	3	1	0	2	11	11	2
KOAK LAIT	3	1	0	2	7	12	2
LOS DIMY	3	0	1	2	5	10	1
MACCABI DE LEV.	3	0	1	2	6	12	1
ILUNA TABERNA	3	0	1	2	8	21	1
SOLANO 7 MARES	3	0	0	3	7	25	0
ELISABETH	3	0	0	3	6	25	0
EZKINAKO HONTZAK	3	0	0	3	2	16	0

Autokarabanak alokatzen dira!



# TAILERRAK METS

T A I L E R R A K

Tfnoak: 78 19 50 / 78 25 92 OÑATI

- HERGO eta HOBBY karabanak.
- RIVIERA auto-karabanak.
- SANGO erremolkeak.
- Kanping eta karabana guztientzako ordezkotz piezak eta osagarriak.




**MIKEL ELORZA ETXEBARRIA**  
25. 452 zenbakidun Aseguru Artekarria  
Arrisku gerentea  
S.Z.O. F-95 erregistro Zka.

Boulevard, 11 5º-A  
Tfnoa: 43 04 14  
Fax: 43 11 01  
20.003 DONOSTIA

Erdiko kale, 4 Behea  
Tfnoa-Fax: 77 13 09  
20.500 ARRASATE

**Garaiko perretxikoak urte guztian zehar!!**



**RUTH GATZAGA**

Olarte kantoia. Tfnoa: 79 59 57  
ARRASATE

- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Paregabeko karta



**Asteburu honetako parekatzeen artean, honako partidu hauek nabarmenduko ditugu, potentee-  
nen artean: B taldean, Argi Ibili -  
Bukanak, eta D taldean, Gure  
Leku - Revolution Rock. Baina,  
tira, atzetik estu dabiltzan  
taldeen artean ere lehia interes-  
garriak gertatzen direnez,  
hauengan ere arreta jartzea  
gomendatzen dugu: B taldean  
Atxanta ke te merece - Tronko-  
teak, eta D taldean, Ezkiñako  
Hontzak - Maccabi de Levantar.**

**BELARRIRA**

◆ **Tutti-goli.** Azken asteburuko goleada handienak Argi-Ibilirena (14-3) eta Tuttifrutirena izan ziren (azken honek 12-4). Lehenbizikoak beti egon dira faboritoen artean, baina Tuttifruti iaz erdipurdi ibilizen talde bat da. Ea aruten nola dabiltzan!

◆ **Iturripeko porteriak.** Zaldibarren ez dira denak kabitzen, eta horregatik jokatu behar da Iturripen. Baina, hango porteriak zulatuta omen daude, eta udalari ez omen zaio bururatzen konpondu behar direnik. Sareak metalikoak direnez, apropos zulatu dituztela ikusten da. Halako batean, batek gol sartu eta baloia galdu egin daitekeen, igoal arbitroren batek ez du pitatuko.

◆ **Gol gutxien.** Joan den astean Carburos - Kriskibalda gomendatu ziguten, partidu interesgarria izango zela. Azkenean, 1-1, denboraldian gol gutxien sartu diren partidua.

**EMAITZAK**

**A TALDEA**

- Anbotoste KT 3 - Auf dem Koffer 1
- Alla Kuidaus 1 - Berango Sukaldeak 6
- Arlutz 8 - Etxe Mobiliario 2
- Bayern Lenitz 2 - Fraguél Gol 1
- Bizkorrak Avenida Taberna 2 - Jey Juliwer 7
- Euskal Indarra 3 - Resakas 4
- Ikatz 1 - Suministros Ugarte 6
- Koxkas 5 - Uglys Txinato 2
- Sokoakoak 3 - Zotz 4
- Trikiti 3 - Whiskeria Linde 0

**B TALDEA**


- Argi Ibili 14 - Atxanta ke te merece 3
- Alpen Krausser 2 - Bukanak 1
- Arrasate Kirolak 2 - Diego Antonio 1
- Betrayer 3 - Fancy Bois 1
- Danok Lagun 3 - Irati STS 2
- Excavaciones Lete 2 - Leintz Garagard.8
- Ganbelas 3 - Notxingan Florest 1
- Kopyprest 4 - Ooole 2
- Monterrey Zubi Bel 2 - Zuloak 3
- Ojo Avisore 3 - Tronkoteak 7

**C TALDEA**

- Arrasate Kristaldegia 6 - Txoko Taberna 1
- Adelaida Haizea 2 - Fosforos 4
- Corinto Taberna 6 - Hirei 10
- Borrokn Roll 4 - Kirten Tropel 3
- Foto Imagen 4 - Los Dalton 4
- Kakajauri 3 - Mikelos 3
- Leya 3 - MZK Ganbelas 3
- Los Heredia 2 - Pepelus 1
- Motz 2 - Sibilius Rover 4
- Nabarros 2 - Potrosorri 1

**D TALDEA**

- Iluna Taberna 3 - Bodisca 8
- AC Surcos 4 - Elisabeth 2
- Nuevo Taberna 5 - Franciscanerr 1
- Carburos 1 - Kriskibalda 1
- Ezkiñako Hontzak 0 - Laso Arregi 3
- Gure Leku 4 - Maccabi de Levantar 3
- Koak Lait 0 - Revolution Rock 8
- Los Dimy 1 - Tovarixt 3
- Potroak Lorategi 4 - Zulus 7
- Solano 7 Mares 4 - Tuttifruti 12




**ARGI PLASTIC**

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik**

**Erakusketa berria:**  
Kanpatorpea, 2  
(Parrokia ondoan)  
**ETORRI IKUSTERA!**



**Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35**

**ASTEBURU HONETAN**

**Larunbata 23**

**Zaldibar**

- 08.50 Kopyprest - Zuloak
- 10.00 Euskal Indarra - Sum. Ugarte
- 11.00 Sokoak - Trikiti
- 12.00 Argi Ibili - Bukanak
- 13.00 Bodisca - Tuttifrutti
- 14.00 Bayern Lenitz - Jey Juliwer
- 15.00 Exc. Lete -Notxingan Florest
- 16.00 Ganbelas - Ooole
- 17.00 Nuevo Taberna - Kriskibalda
- 18.00 Kakajauri - MZK Ganbelas
- 19.00 Auf dem Koffer - Whiskeria Linde

**Iturripe A**

- 10.00 Anbotoste KT - Berango Sukaldeak
- 11.00 Carburos - Laso Arregi
- 12.00 Arrasate Kirolak - Fancy Bois
- 13.00 Los Di my - Zulus
- 15.00 Alla Kuidaus - Etxe Mobiliario
- 16.00 Adelaida Haizea - Hirei
- 17.00 Betrayer - Irati STS
- 18.00 Arrasate Kristaldegia - Fosforos

**Iturripe B**

- 10.00 Koxkas - Zotz
- 11.00 Alpen Krausser - Diego Antonio
- 12.00 Motz - Nabarros
- 13.00 Iluna Taberna - Elosabeth
- 15.00 Borrockn Roll - Los Dalton
- 16.00 Arlutz - Fraguel Gol
- 17.00 Txoko Taberna - Potrosorri
- 18.00 Danok Lagun - Lenitz Garagardotegia

**Igandea 24**

**Zaldibar**

- 08.50 Atxanta ke te merece - Tronkoteak'
- 10.00 Corinto Taberna - Kirten Tropol
- 11.00 Los Heredia - Sibilius Rover
- 12.00 Gure Leku - Revolution Rock
- 13.00 Ezkiñako Hontzak - Maccabi de Levantar

**Iturripe A**

- 10.00 AC Surcos - Franciscanerr
- 11.00 Monterrey Zubi Bñ - Ojo Avisore
- 12.00 Foto Imagen - Mikelos
- 13.00 Ikatz - Uglys Txinato

**Iturripe B**

- 10.00 Koak Lait - Tovarixtz
- 11.00 Leya - Pepelus
- 12.00 Potroak Lorategi - Solano 7 Mares
- 13.00 Bizkorak Avenida Tab. - Resakas



## 'Korintotarrei epistola': bi puntuko zigorra

Denboraldiko lehen zigorra Corinto Taberna taldeari egokitu zaio: bi puntu kentzea erabaki dute antolatzaileek. Corinto Taberna - Hirei partiduan, 6-10 galdu zuten korintotarrek eta nahiko haserre ibili ziren antza.

Txapelketako arauetako batek dioenez, partiduetako zati bakoi-tzean, bi taldeetako batek jaso behar ditu urruntzen diren baloiak. Bigarren zatian, Corintori zegokion lan hori, baina ez zuten bete: arbitroak birritan atentzioa deitu zien, eta baita antolatzaileen delegatu batek ere. Baina kasurik ere ez, eta baloi bila arbitroak joan behar izaten zuten. Partidua amaitzeko minutu bat falta

zela, berriro komedia: danba, baloia pikutara, eta Corinto Tabernakoek ez zutela bila joan nahi. Horren aurrean, arbitroak partidua orduantxe amaitzea erabaki zuten. Astean, antolatzaileen 12 lagunekoko batzordea bildu zen, eta egoera aztertutik, Corintori bi puntu kentzea erabaki zuten.

Aurten ez dago martxan iazko diziiplina batzordea, nahikoa polemika izan zelako haren inguruan. Taldeen lau ordezkari izan arren "bronka" guztiak antolatzaileentzat izan ziren. Ondorioz, antolatzaileek beren gain hartu dute ardura guztia, haserre guztiak beren gain jausten direla ikusita.



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien  
sorkuntza.**

**Larazaintzako  
mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza  
hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

● *Bernardo Atxaga*

# “Izena presio izugarria da bizitzeko”

— Ze idazlanetan diharduzu orain?

— Hasieran nire gogoia hemengo egoerari begiratzea zen, nire bizitzari eta inguruko jendeari begiratu eta horren inguruko gogoeta egitea fikzioaren bitartez, fikzioaren lege gogorrei jarraituz. Orduan, bi pertsonaia hartu nituen, Karlos eta Kropotki ezizenez, eta hasi nintzen nobela bat egiten. Gero ikusi nuen, egiten banuen nobela osoa, 800 orrialde ez urruti, eta hori ezinezkoa da gaurko egoeran, eta nola hiru zati zituen bereziak, erabaki nuen hiru liburu egitea, hiru nobela argitaratzea, ahal bada urterik urte, eta bestela bi urterik bi urte. Lehenak “Gizona bere bakardadean” du izena.


— Ameriketara joan behar zizela komentatzen zen.

— Baina ez naiz joan, nahiz eta historia hainbeste zabaldu non gaur bertan esan didaten Nevadan zain dauden. Asmoa zen hara joatea, dena prest eduki ere baneukan, eta azkeneko astean ezusteko bat gertatu zen, eta gelditu nintzen ez aurrera ez atzera, eta

erabaki nuen: hartu gauzak dauden bezala, gehitu hiruzpalau liburu kaja gehiago, eta hegoaldera joatea, eta hor Extremaduran, oso herri txiki batean egon naiz. Azkenean onerako izan da ezusteko hura, ze lana egin dut hemen baino bost halako, dudarik gabe. Ameriketara datorren urtean joango naiz, liburua han atera denez gero.

— Nola doa “Obabakoak” ingelesez?

— Sartzen bazara Londresko liburutegia batean eta ikusten badituzu bakarrik liburu berrien apalak, hori igual egongo dira 300 liburu, eta horietatik hemengo batek igual ezagutuko ditu izenez 2 edo 3 egile. Neurri horretan jarri behar duzu, eta horretan jarri gero, ba liburua esperantzaz aurrera joan da. Esate baterako Londresen 2. edizioa atera da orain, oso zaila dena. Ingalaterra 1. astean, atzera eta segituan, mila liburu saldu zituzten. Ondoena kritikaren aldetik joan da, kritika onenak izan ditut New York Times-en eta Times-en, onegiak, uste dut.



— Bitxikeria etnikoa irudituko zaie akaso.

— Ez ezazu pentsa. Mundua oso zabala da eta guri iruditzen zaigu gu gurela munduko bakarrak eta bitxikeria bezala ere behintzat izango genukeela tokia. Gertatzen da bitxikeria etnikoak New Yorken igual milaka daudela. Nire jakinmina orain da zer gertatuko den hango euskal koloniarrekin, ez dakit nola hartuko duten, uste dut lehenbiziko aldia dela idazle euskaldun bat New York Times-en azaltzen dela.

— Izena izateak presioa dakar idazteko orduan?

— Dudarik gabe, izugarria. Presioa idazteko eta bizitzeko, gauza guztietarako. Hori pixkanaka bizkarrean daramazun zakua betetzen

joatea da, eta egunen batean, neurritz gora beteko da eta ezin izango dut jaso. Izugarria da, bizitza guztia aldatzen dizu.

— Baina ondo daroazu?

— Aldika. Alde batera presondegi bat bezala da izena edukitzea. Gordean bizi behar duzu beti, irteerak ondo neurtuz. Nik halako irla batzuk bezala dauzkat nire munduan. Bata da nire Gasteizko auzo txikia, eta bestea nire jaioterri txikia. Esango nuke hori bakarrik ibiltzen naizela, ibiltzen naizenean pertsona bezala, gero, lanagatik, hara eta hona.

— Nola dabil Emak Bakia Baita?

— Oso talde txiki batek egiten dugu materialki. Gu oso pozik gaude nahiz eta orri bat besterik ez izan (Garziarena aldizkaria), jende askok bidaltzen dizkigu gauzak. Gaur, pentsa, Arrasatetik zertorren gutun bat jasi dugu, eta bertan kolaborazio bat harako. Banatu ere 700-800 inguruan ibiltzen gara. Pixkanaka gaitza.

● **“Obabakoakekin kritika onenak izan ditut New York Times-en eta Times-en, onegiak, uste dut”**



Hamar egunetarako etorri dira txinarrak, eta Otalora etxeko zerbitzuen bidez ari dira kooperatiben mundua ezagutzen.

Gung Ho

# 工合: Elkarlana

Lana Elkarrekin

Luis Fernandez

**Elkarlana ikur birekin adierazten da txineraz: Gung Ho (lana elkarrekin). Horrela esaten da 'kooperatiba' txineraz. Ordezkaritza txinar garrantzitsu bat Arrasaten dago egun hauetan, hemengo esperientzia kooperatibotik ikasteko, eta harremanak estutu asmoz. Nazioarteko harremanak, nazioarteko elkarlan bihurtu asmoz.**

Nazioarteko bisitaldiak sarri izaten ditugu Arrasaten. Azken asteetan, munduaren hiru bazter arras desberdinetatik etorri dira bidaiariak. Duela hiru aste, Eskoziako ordezkaritza ofizial bat izan

zen. Joan den astean, Estatu Batuetako hegoaldeko kooperatibetakoak, beltz komunitateen artean kooperatibismoa bultzatu nahi dutenak. Aste honetan txinarrak. Kooperatibismoaren esperientzia arrasatearra da kanpotarrak erakartzen dituen arrazoia.

Talde kooperatiboak, MCCk, interes berezia jartzen du bisitariak hartzen. Hiru arrazoi nagusi antzeman daitezke interes horretan. Batek, beste esperientzia kooperatibo batzuen berri izatea beti da probetxugarria, haiek ikastera datozen heinean, zer irakatsi ere izaten dutenez. Bigarrenik, interesgarritzat jotzen da kanpoan ere kooperatibismoaren balioak gartztea. Azkenik, nola ez, etekina: harreman komertzialak

estutzeko aukera ematen dute nazioarteko loturek.

Txinako ordezkaritzaren bisitak garrantzia berezia du azken alde honetatik. MCCk atzerrira zabaltzeko interes berezia dauka. Korporazio gisa irudi berria garatu duenetik, MCC izena harturik, kooperatiben taldea "errazago eta garantiaz ari da ailegatzten Txina edo Mexiko bezalako merkatuetara, garatzen ari diren merkatu garrantzitsuetara", Javier Mongelosek, MCCko buruak, uda aurretik urteko balantzea aurkeztean azaldu zuen bezala.

Kooperatibek Txinan duten inplantazioaren adibide bat Fagor da. Bere kontrol numerikoko sistemak lider dira Txinako merkatuan, japoniar gutziz-ahaltsuen aurretik ere.

**T**  
**xinan ez dute  
 pentsatzen  
 kooperatibismoa  
 sozialismoaren  
 eta merkatu  
 ekonomiaren  
 erdibidea denik.**

## TXINAKO KOOPERATIBISMOA

Txinaren garrantzia kontuan izanda, mimos prestatu da ordezkartzaren 10 eguneko bisita. Itzultzaile batekin, Txinako kooperatiben nazioarteko garapenerako batzordeko bi buru, Israel Epstein lehendakariordea (jatorri poloniarrekoa, baina txinarra bera) eta Xiao Weixiang idazkari nagusia izan dira, eta berekin batera, bi esperimentazio-gunetako zuzendariak, Chu Shumin eta Zhao Rencai. Bisitaren ideia, MCCko Mongelos iaz Txinan egon zenean sortu zen. Baina "bageuekan Arrasatekoaren berri hona etorri baino lehenago, aspalditik izatez", komentatzen digu Epsteinek.

Duela 50 urte mugimendu kooperatibo zabala egon zen Txinan, baina gero Estatu ekonomiararen menpean geratu zen. "Orain, maila teknikoan daukagu erronka, oinarri kooperatiboak berreskuratzeko erronkarekin batera", Epsteinen iritziz. "Kooperatibek beren tokia dute Txinako konstituzioan, bertan zehaztuta daude ekonomia kooperatiboaren oinarriak. Berez, orain, xedea hori erakitzen joatea da".

Txinarrek espektatiba handiak jarri dituzte bidaia honetan. Txina transformazio ekonomiko izugarrian dago gaur egun, merkatu ekonomiarako saltoan. "Estatuko ekonomiak, enpresa erraldoiek, bere hartan iraungo dute Txinan industriaren zutari nagusi bezala", dio, dena den, Epsteinek. Bere ustez, kooperatibismoa ez da kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko erdibidea. "Garapen azkarraren ondorioz", dio Epsteinek, "desorekak ari dira gertatzen eta jende askok lanpostu berriak aurkitu beharko ditu orain, eta uste dut sistema kooperatiboak badaukala zeregina hor".

# "Inpresio sakona jaso dugu"

**Israel Epstein eta Xiao Weixiang dira Arrasatera etorritako ordezkartza txinarreko buruak. Epsteinen izen eta iturak, azalpena merezi dute: zazpi urte zituela, bere familia poloniar judutarrek exiliara ihes egin zuen, Txinara. Berez, txinarra da oso osorik Epstein, bertako alderdi komunistako burukidea gainera, garai batean Mao Zedong-ekin buruz-buru ibili zena lanean. Berarekin eta Xiaorekin hizketan jarduteko aukera izan genuen.**

— Zein helburu konkreturekin etorri zarete?

Xiao— Arrasatera etorri garen ordezkartza honetan, Txinako bi esperimentazio gunetako jendea etorri gara, Shandan eta Longkou hirietakoak. Hemengo kooperatibekin elkalanean aritzeko asmoa daukate hiri horietakoek, eta gure kontaktuak burutu eta gero, ikusiko dugu zertan geratzen den guztia. Gure bisitaldiaren hasieran gaudenez, azkarregi da hori esateko. Baina marmolaren transformaziorako proiektuak daukagu, eta elektratresnak egitekoak ere bai. Bi gauza horiek dira gehien interesatzen zaizkigunak.

— Indartsuak dira zuen kooperatibak?

Epstein— Ez dira horren indartsuak. Garai batean Estatuaren harreman-sarean integratuta egon ziren kooperatibak, Estatuaren industriaren parte izan ziren, eta orain oi-

nari kooperatiboetara itzultzen ari gara, ez oso osorik, baina hein handi batean bai. Gure funtzioa zera da: eredu kooperatiba batzuk sortzea, beste kooperatiba berri batzuentzat norabidea markatzeko.

— Ze inpresio egin dizue Arrasateko kooperatiben munda, eta Euskal Herriak?

Xiao— Bisitaldiaren helburua Arrasateko esperientzia estudiatzea eta bertatik ikastea da. Hemengo kooperatiben historia aspalditik genekien eta. Arrasateko paisaiak eta ingurua oso politak dira. Batez ere, lantegi industriala naturatik hain hurbil nola dauden, horrek inpresioa egin digu. Aldi berean, oso lantegi garbiak dira, eta horrek oso inpresio sakona egin digu.

Epstein— Oso inpresio ona hartu dut. Denok hartu dugu. Arrasaten ikusi dugunak espero genezakeena gauditu egin duela esan dezaket. Oso ondo hartu gaituzte eta oso herrialde polita daukazue gainera.



Xiao Weixiang eta Israel Epstein, ordezkartzakako buruak.



Emakumezkoen Mondra denboraldi hasierako partiduan.

# Oinarrizko futbol taldeen diru-arazo kezkarriak

**Oinarrizko** futbol taldeen finantziario arazoak konpontzeko ahaleaginean segitzen du Mondragon Futbol Taldeak. Zazpi talde dira, 2. regionalekotik eta emakumezkoetik hasita, umeen taldeetaraino, eta guztiekin kontaktuan jarri da direktiba zein diru iturri dauden azalduz, eta gainerako diruzuloak konpontzeko bideak lortu nahian.

Mondrak nahiko finantza kaskarrak ditu gaur egunean: zorra 6,8 milioi PTAKoa da, eta datorren denboraldirako aurrekontuak onartzeke ditu klubak, balantze orekaturik ezean. Ohizko diru iturrietatik (esportsorak, abonatuak, sarrerak), esportsorrena ia itxia geratu da krisiaren on-

dorioz, eta abonatuak lortzeko kanpainak oihartzun gutxi izan dute. Ondorioz, kontuak egin dituzte klubeko arduradunek, eta oinarrizko taldeetan gastatzen diren 7 milioi PTA horiek handik edo hemendik atera behar direla azaldu dute. Gutxi gorabehera erdia dirulaguntza ofizialekin betetzen da, baina gainerakoa nola?

Oinarrizko taldeei auzia zertan den azaldu diete direktibakoek, eta erantzun desberdinak jaso dituzte: talde txikiago batzuetan, gurasoak kuotak ordaintzeko prest daude; emakumezkoak, bidaiak beren kontura egiteko, baina 2. regionaleko talde sortu berriak ez du erantzunik eman, eta beren

poltsikotik dirurik ez dutela jarri nahi adierazi dute.

Klubeko arduradunek azaldu digutenez, aurrekontu murrizketak egin daitezkeen tokian, egin egin dira: nagusien taldean. Baina talde txikietan ez dago diru mozketarik egiterik. Hala ere, aurrekontua orekatzea ezinbestekoa zaio Mondrari, bestela urtean 4 edo 5 milioiko zorra gehitu ezker, taldea pikutara joan daitekeelako epe laburrean.

Oinarrizko taldeetatik jasotako erantzunekin, beste elkarrizketa txanda bat izango du direktibak taldeekin, aurrekontua zenbat orekatu daitekeen ikusteko. Beharbada 2. regionalekoekin negoziatzeko orduan egon daiteke auzi honen giltza.

## LABURRAK

### Denboraldia hasi da rugbyan

Asteburuan hasi zuen Arrasate Rugby Taldeak denboraldia. Bikain hasi gainera: 5-57 irabazi zion Gaztediri Gasteizen. Iaz jaitsi eta gero, Euskal Ligako 2. mailan dago aurten Arrasaten, eta igotzea da helburua. Bi talde daude maila horretan, 9 ekipo bakoitzean. Liga amaieran talde bietako txapeldunek 1. mailako bi azkenekin ligatxoa egingo dute, eta bat edo bi geratuko dira 1. mailan. Taldean izan dira berrikuntzak, bost jokalarri jubenetatik igo dira, eta beste hiru berri daude. Ekipo polita dago, borrokan ibiltzeko modukoa, baina inork ez du ezer erregalatzeko eta zaila izango da igotzeko helburu hori gauzatea. Erraz irabazten hasi ziren arren, oraindik taldea ez dago ondoegi konjuntatuta, komentatu digutenez, eta jokoa hobetzeko esperantza dute.

### Bostetik bost?

Arrasate saskibaloitaldearen ibilbidea ezin bikainagoa da 2. mailaren denboraldi hasieran. Lau partidu jokatu, laurak irabazi, eta lidergoa. 5. garaipena ere eskura izan dezakete: Gasteizera bisitaldia dute eta Caja Vital farolilloa izango dute aurkaria, itxuraz kaskarra den taldea.

# Gida Komertziala Hemengo orrialde horiak

Adi, zerbitzu sektorea: gure bisita jasoko duzu



**ARRASATE**

ARKO: ARRASATE KOMUNIKABIDEAK





## PENALTIAK

● **Federazio Kopan** abenduaren 24ean, ga-bon egunean, jokatuko du Mondrak Amurloren aurka, Gasteizko zelai neutralean. Kanporaketa partidu bakarrean jokatuko da, eta irabaziz gero, Estatuko taldeekin jokatu beharko ditu Mondrak hurrengo kanporaketak. **Federazio Kopa 3. mailako talde onenen artean jokatzen da.**

● **Realak Anoetan jokatzen duenerako autobusak egongo dira Arrasaten. Partidua hasi baino bi ordu ta laurden lehenago irtengo da autobusa Eskoriatzatik, bi ordu lehenago Aretxabaletan egongo da eta ordu ta hiru laurden lehenago Arrasaten.**

# Arrasate-Eskoriatza krossaren lehen edizioa igandean

Igande honetan kross herriko berri bat estreinatuko da: Eskoriatza - Arrasate lasterketa, Arrasate Atletiko Taldeak antolatuta, eta Arrasate Kirolak etxearen babesarekin (frogak "1. Arrasate Kirolak Krossa" dauka izena). Antolatzaileen asmoa, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateren arteko loturak kirolaren bidez estutzea da.

7.100 metroko froga honetan nahi duenak har dezake parte, eta hiru kategoria izango dira, beterrano, senior eta juniorrak, emakumezko eta gizonezkoetan.

Beterenoen kategorian (53an baino lehenago jaiotakoak) lehenak 10.000 PTA, bigarrenak 6.000 eta



Kross herrikoiek tradizio eta arrakasta handia daukate Deba Garaian.

hirugarrenak 3.000 PTA izango ditu. Juniorretan (74tik 76raino jaiotakoak), sari berberak, eta seniorretan lau lehenei sariak: 15.000, 10.000, 6.000 eta 3.000. Lehen sailkatu guztiek trofeoak eta txapelak jasoko dituzte.

Irteera Eskoriatzan izango da eguerdiko 12.30ak al-

dera. Ordu baterako Arrasaten izango ditugu onenak. Faboritoen artean Joxe Apalantza nabarmendu liteke beharbada. Ea ba arrakasta duen froga berriak, eta beste lasterketa herriko batzuk bezala (Arrasate - Oñati esate baterako), kirol egutegian finkatzen den.

## EMAITZAK

### Futbola

3. maila: Mondra 2 - Urola 1  
Emakumezkoak: Mondra 3 - Ostadar 1  
2. regionala: Mondra 1 - Zestoa 1  
Jub. Ohorezko Liga: Mondra 5 - Trintxerpe 0  
Kadeteak, 1. maila: Arrasate 4 - Aurrera 4  
Kadeteak, 2. maila: Antzuola 5 - Arrasate 2  
Haurrak: Aitzgorri 0 - Arrasate 3  
Hurrengoak:  
3. maila: Anaiatasuna - Mondra. Azkoitia, igan., 16.00.  
Emakumezkoak: Intxaurdi - Mondra. Donostia, igan., 11.45.  
2. regionala: Lagun Onak - Mondra. Azpeitia, lar., 16.00.  
Jub. Ohorezko Liga: Beasain - Mondra. Lar., 16.00.  
2. jubenila: Urki - Arrasate. Elgoibar, igan., 12.00.  
Kadeteak, 1. maila: Aloña Mendi - Urki. Oñati, lar., 10.30.  
Kadeteak, 2. maila: Arrasate - Bergara. Atxabalpe, lar., 16.00.  
Haurrak: Arrasate - Eibartarrak. Atxabalpe, lar., 11.30.

### Saskibaloia

2. maila: Arrasate 98 - La Salle 90  
Sub-23: Arrasate 76 - Sto. Tomas Lizeoa 58

Jubenilak, mutilak: Arrasate B 90 - Itzurun Kirolak 19  
Jubenilak, neskek: Sasoeta 83 - Pattermca 54  
Kadeteak, mutilak: Andraitz 74 - Loramendi Kirolak 79  
Hurrengoak:  
2. maila: Caja Vital - Arrasate. Iparralde kir., Gasteiz, lar., 18.30.  
Sub-23: Aralar Kirolak - Arrasate. Tolosa, igan., 11.00.  
Jub. mutilak: Arrasate A - Juvvn. Musakola, igan., 16.00.  
Eskoriatza - Arrasate B. Eskoriatza, lar., 16.00.  
Jub. neskek: At. San Sebastian - Pattermcam. Donostia, lar., 16.00.  
Kadeteak, neskek: Arrasate A - Ibai Lizeoa. San Viator, lar., 12.00.  
Kadeteak, neskek: Arrasate B - Almen B. San Viator, lar., 16.00.

### Rugby

Euskal liga, 2. m.: Gaztedi 5 - Arrasate 57  
Jubenilak: Plentzia 37 - Arrasate 0  
Hurrengoak:  
Nagusiak, lagunartekoa: Zarautz - Arrasate. Larunbata, 16.00.

Jubenilak: Arrasate - Bera Bera. Garagartza, larunbata, 17.00.  
Neskek: Arrasate - Durango. Garagartza, larunbata, 15.00.

### Eskubaloia

1. eskualdekoa: Arrasate Kirolak 23 - Urnieta 22  
2. eskualdekoa: Arrasate Kirolak 21 - Beasain 16  
Jubenilak: Aloña Mendi 21 - Arrasate Kirolak 13  
Hurrengoak:  
1. eskualdekoa: Loiola - Arrasate. Donostia, igandea, 11.00.  
2. eskualdekoa: Zarautz - Arrasate. Larunbata, 19.00.  
Jubenilak: Arrasate - Leitxaran. Iturripe, igandea, 12.00.

### Pilota

Gipuzkoako klub artekoa:  
Senior, banaka: Plaentzia 18 - Arrasate 8  
Senior, larruzko paleta: Girizia 35 - Arrasate 30  
Jubenilak, binaka: Arrasate 20 - Pagola 22  
Junior, binaka: San Esteban 16 - Arrasate 22  
Hurrengoak:  
Iturripen, larunbatean, 11.00. Junior binaka (Arrasate - Olalde) eta senior banaka (Arrasate - Beti Poz).

Ongi aukeratu ahal izan dezazun

Gizonezkoentzako  
erropa

**Egizabal**

Gizonezko eta  
emakumeentzako  
oinetakoak

Bidekurutzeta, 13 Tfnoa: 76 12 28 BERGARA

# Guraso eskola San Viator ikastolan

**San Viator** ikastolak 16 urte daramatza Guraso Eskolako taldeekin. Lehen deialdia egin zenean, San Viator Ikastetxe-ko ikasleen guraso talde hau sortu zen, hamar senar-emazte osaturikoa, eta horrela jarri zen martxan heziketazko mugimendu hau.

Lehen talde honetako partaideak aldatzen joan ziren eta une honetan talde horrek irauten du hasierako eta berriak diren bikoteek osatuta.

Joan zen ikasturtean beste talde bat osatu zen San Viator Ikastolan, hau ere hamar senar-emazterekin.

Momentuz, bada, San Viator ikastolan, Guraso eskolako bi taldeek funtzionatzen dute.

Taldeen helburua: Senar-emazte eta guraso seme-alaben arteko harremanak analizatu, familia barneko arazoak komentatu, egoera larriei erantzun eta irteera egokiak bilatu, ikastolako gaiak eztabaidatu, seme-alaben ikasketak eta merezi dituzten sari edota zigorrak argitu, fede katolikoa eta gizartean nolakoa izan behar duen kristautasunaren jokoerak ikusi.



Guraso-eskolaren bilera San Viatorren

Talde bakoitza astean behin elkartzen da ordubeteko bileran eta horrela segitzen du ikasturtean zehar oporretan ezik.

Gaiak denon artean aztertzen dira Goio Eskibelek, taldeen arduraduna denak, aurkeztu ondoren.

Hiruhilabeteak bukatzean, nahi dutenek, prestatutako elizkizunetan hartzen dute parte eta ikasturte bukaeran familia guztiekin irteera edo eskurtsioa antolatzen da.

Taldeak zabalak dira eta nahi dutenek har dezakete

parte, bai funtzionatzen duten taldeetan, bai beste talde berri bat sortuz.

Talde hauek, bai ikastolaren martxan, bai eta, batez ere, beraien familietan zer egin handia dute aztertzen diren gaiak aplikatuz.

Era berean, esan beharra dago askotan tratatzen den gaiak bera baino askoz ere aberastasun handiagoa duela elkarren artean sortzen den komunikazioak eta bakoitzaren esperientzia elkarrekin jartzek.

Guraso eskolako bi talde

hauek herriaren aldeko ekintza batzuetan ere hartu dute parte hainbat aldiz. Hona hemen, laburki esanda, taldeak aurrera eraman dituzten ekintzak:

- Monitore lana eginez, klasetik kanpoko Ikastolako hezkuntzako gazte taldeetan parte hartu.

- Parrokiako katekesi taldeetan monitore lana egin.

- Herriko Gabonetako Erregeen Kabalgatako jantziak prestatu, moldatu, jantzigintza zuzenduz.

- Gabonetan, Bosnia-Herzegovinaren aldeko janari eta erropa bilketa kanpaina zuzendu.

- Udaletxeak Arrasaten drogomenpetasunen aurrezaintza eta argibiderako zerbitzuen lankideak izan.

- Munduan Ipar eta Hegoaldearen arteko ezberdintasun ekonomikoari buruz, aberastasuna eta pobrezia-aren arteko amildegia-ri buruz alegia, Arrasateko herria kontzientziatu eta Monterronen hitzaldia antolatu.

**SAN VIATORREKO GURASO-ESKOLA**

## MENDI taberna

Mendi da zure etxea

Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

**M**  
**A**

**ARENAZA**

Bizkaia, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07

**beatriz**

oinetakoak eta  
poltsak


Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

**V. O. Version Original**

General Alava, 16 - Tfnoa: 13 33 39 - GASTEIZ

# a, eme... sukaldeak

Zerkaosteta, 3 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE



MOBILIARIO DE COCINA Y BAÑO

# Zuekin...mondraueko “kantore internazionalak”

**Pedro** Zumelaga, Julio Iriondo, Joxe Mari Mendizabal, Karmelo Heriz eta Patxi Nafarrate, gure herriko kantorerik internazionalenak izango dira seguru asko. Parrokiako koruko partaide dira, baina han eta hemen, koru batekin eta bestearekin, eskatutako lekura, atzerrira edo estatuko hainbat lekutara joan izan dira, eurek umore onez esaten duten moduan, “Merzenarioak”.

Kantuaren bidez ezagutu dute mundurik erdi: “Santander, Granada, Iruñea, Lisboa, Paris, Expo, Berlin eta Londreseko Filarmonikak...”

Kantetako modua aldatu da, baina batez ere zuzendararen aldaketak eragiten due-



la uste dute.

Mondrauen Zarzuelak egin zireneko garaia dago euren historiaren hasieran. “Bergarako Orfeoitik laguntza eske etorri ziren, eta gero Orfeon Pamplonés eta Donostiako Orfeoia ere bai”.

Errefuerzo lanetarako

prestakuntzak, Arrasaten egin dituzte, partiturak hartu eta eurak bilduta. Gero entsaio batzuetara joaten dira abesbatza eta zuzendaria ezagutzeko.

Herriko abesbatzarekin lehen aldiz kantatuko dute, ostera. Ez dute entsaio guztietara joan nahi, eta ahots gehiagoren

beharra dagoenean joateko prest daudela esana diote Goikobaluko zuzendarirari. “Koru politta da, eta direktoria oso ona. Gero asko igerten da herrixen akademixa bat dauna, koruko jentia musiek daki eta hori oso da inportantie”. Eurak autodidaktak direla esaten dute. Autodidaktak, baina mundurik mundu musika ezpainean hartuta ibili direnak. Bidaia ordainduta eta “tripatruke” ibiltzen direla esan daiteke. “Zigor” estreinatu zutenean, “en adelante usted se llamará artista” zioen agiri bat ere sinatu zuten Bilboko “Asociacion Pro arte delakoak bultzatuta. Azkenean, herrian izango dira profeta, eta... artista.

**MANGO**

Postas. 5 eta 5 bis GASTEIZ

Tfnoa:(945) 23 04 48

icons



# J

asoi baten, eta Zerrajera eta Roneoren garairik onenetan, langileen ejerjizio esperitua-lak edo gogo-jardunak, enpresak antolatu eta ordainduta izaten ziren. 1943ko urtarri-laren 30ean atera zuten erre-tratua, Donostiako Ulia men-diko Villa Santa Teresan as-tebeteko ejerjiziotan egon ziren mondrauetar hauek.

San Inazioaren ejerjizio famatuak ematen, berriz, **An-jel Sukia Goikoetxea**, ageri da mondrauetarren ar-tean, gaur egun Madrileko Artzapez-Kardenala dena. Garai hartan Donostian eta

ilboko Begoñan ejerjizioak eman zebilen; gero Kanoni-go, Gasteizko Seminarioko Errektore, Almeria eta Mala-gako gotzai, eta Konferentzia Episkopaleko Presidente ere izan da, besteak beste, apaiz Zaldibitar hori.

Erretratuan, ezkerretik hasita, **Jose Luis Martinez, Jabier Olalde, Anjel Su-kia, Jose Ayala** eta **Piede-hierro**. Makurtuta **Agustin Azkoaga**.

On Jose Maria Arizmen-diarrietaren bitartez joan zi-ren Donostiako ekitaldi ho-rrretara, orain 50 urte.



Mondeo

**MUGARRI**

Mondeo



**Barruko indardun edertasuna**

**Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.**

**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65**

**Etxebizitzak**

- **Bikote gazte batek pisua behar du alogeran** Arrasaten. Tfnoa: 77 08 55. Bulego orduetan deitu.
- **Neskentzako logelak** alokatzen ditut, sukalde eskubidearekin. Tfnoa: 77 03 36. Diana. Lan orduetan.
- **Bilboko parte zaharrea pisua** osatzeko ikasle bat behar da. Dei egin 79 34 51 edo 79 51 30. 7,30etatik 10,30etara.
- **Gela bat dago libre** bi oherekin. Tfnoa: 79 07 73.
- **Leioan bi ikasle behar dira** pisua osatzeko. Tfnoak: 77 12 00 (lan-orduetan) eta 71 42 10 (Gauetz). Kontxi.
- **Etxebizitza salgai S. Andres auzoan.** 58 m2. Guztiz berriztua. Egoera ezinhobean. Deitu 79 54 65 tfnora. Ara.
- **Zaragozan pisu bat osatzeko** pertsona bat behar dugu. Tfnoak: 79 52 97 edo 75 19 98.
- **Bilbon, bi pertsona behar dira** pisua osatzeko. Tfnoa: (94) 475 71 72. Oso merke.
- **Familia batek bi ohedun logela** eskaintzen du ikasle edo langileentzat. Konfortablea. Pentsio osoa, erdi pentsioa edo lo egiteko. Interesatuak Jose Luis Iñarra Pasealekua, 25, bajutik pasa.
- **Isaban apartamentua alokatzen da.** Sukaldegongela, komuna, 2 logela. Interesatuak (948) 11 14 58 tfnora deitu (8etatik 10etara). Juanan.
- **Deustun pisu bat betetzeko** pertsona bat falta da. Tfnoa: 79 14 71.

**Lana**

- **Andre euskalduna prest** etxeko lanak egin, umeak, gaiso edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 07 73.
- **Emakume esperientziadunak, etxeko lanak** egin edota umeak zainduko lituzke. M<sup>a</sup> Karmen. Tfnoa: 79 60 18.
- **Esperientziadun neska ingelesezko klaseak** emango lituzke. Talde txikiak. Dei egin tfno honetara: 79 08 00.
- **Ekonomia eta Enpresa** Zientziak egindako neska klase partikularrak ematen ditu: kontabilitatea, matematika, euskera, ingelesa... Tfnoa: 79 26 93. Nerea.
- **O.H.O. ko klaseak ematen dira.** Tfnoa: 79 88 04. Eli. Arratsaldeko 3etatik aurrera.
- **Larunbat goizetan partikularrak** emango nituzke, OHO, BBB edo UBI mailan (matematika, kimika eta fisika). OHOko edozein gai. Tfnoak: 79 46 75 edo 79 23 36.
- **Pertsona batek edozein lan** egingo luke. Tfnoa: 78 00 63. M. Sharif.
- **Esperientziadun gazte bat naiz,** garbiketarako jende nagusia zaintzeko prest nago. Deitu 79 50 30 tfnora. Jose Miguel.
- **Emakume esperientziadunak ume zaindu** edo etxeko lanak zainduko lituzke. Arantxa. Tfnoa: 79 13 66. Edozein orduetan.
- **Kanguro lana egingo nuke** ostiral eta larunbat gauetan. Tfnoa: 79 65 70. Ainhize.

**Salerosketak**

- **Trabesiako eskia egiteko** bigarren eskuko materiala erosiko nuke (eskiak, botak...) Tfnoa: 79 08 23.
- **Opel Kadett GSI 2.0 SS-AF salgai.** Primeran. Prezio ona. Tfnoa: 79 97 48. Angel.
- **Garaje bat salgai** dago Aretxabaletan. Tfnoa: 79 29 19.
- **Elurtxakurkumeak (Siberian-joski) salgai.** Oso arraza onekoak. Prezio onean. Tfno: 79 57 03.
- **ZERO SETTE** trikitixa berri-berria salgai. Prezio onean. Interesatuok dei 79 33 73 tfnora.
- **FAGOR** markako 100 litroko termoa salgai. rezio onean. Tfnoa: 79 07 73.
- **ATLAS XT Plus 512 KB ordenadorea salgai.** Fipp de 3 1/2, 720 KB. Hard Disk 20 MB. Placa CGA/Hercules. Teclado expandido. Monitor Tatung 1422. Tfnoa: 77 07 44.

**Denetarik**

- **Astero Gasteizera joateko kotxe** baten bila nabil. Goizeko 8,30etarako. Tfnoa: 79 40 71. Arantxa.
- **Malagan, zuri zerbitzua emateko arrasatearrak** ZEUS HOTELean. Tfnoa: 952 31 72 00. M<sup>a</sup> Carmen eta Iban.
- **Egurrezko kataia galdu da.** Tfnoa: 79 18 28. Eskertuko da. Tere.
- **Pianoak afinatzen dira.** Tfnoa: (945) 44 52 85. Aramaixo.

**Aste Gazte**

**Bekak**

- Garraiorako dirulaguntzak, LH I eta IEE I zentru publikoetako ikasten ari direnen ikasleei zuzenduak. Epea: urriak 30.
- Ikerketak burutzeko 125 beka, karrerako azken ikasturteko ikasle nahiz lizentziatuei zuzenduak. Arloak: ingurugiroa, finantz sistema eta humanitateak. Epea: azaroak 10.
- **Gazte topaketak:**
  - Gazteen I. Topaketa

Compostelan, urriaren 29tik azaroaren 1era bitartean. 18 urtetik gorakoei zuzendua. Prezioa: 15.000 PTA, bidaia, alojamendua, mantenua eta egitarauan antolatutako ekintza guztietan parte hartzea barne.

**Ikastaroak:**

- Lan munduan sartzeko eta hirugarren adinaren arretarako ikastaroak, Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan. Emakume langabetuei zuzendua. Izena emateko

epea: urriak 26.

- Argazkigintza ikastaroa, hastapen maila. Urriak 27tik abenduaren 1erarte, astelehen eta asteazkenetan, 7etatik 9etara. Matrikula: 1.000 PTA.

**Barnetegiak**

- Udazken honetan zure euskarari bultzada bat ematera animatzen bazara, aukeratu dituzu zenbait barnetegi.

**“Ni oso ongi gogoratzten naiz garai hartan nola ikusten nituen pertsona helduak edota mundua zernolakoa zen zoruaren paretik ikusita.”**




**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**

## Z E R N A H I A G O ?

## Ana Bolinaga

## AEKn irakasle izandakoa

- Zer esango zenioke mutil polit bati? Keinuren bat egingo nioke.
- Zerk kezkatzen zaitu momentu honetan? E.Hren egoerak, presoen egoerak, jendearen pasibitateak...
- Zein musika ez zeuke sekula entzungo? Folklorismo merkea: Lola Flores, Pantoja...
- Zein hizkuntzatan dira maitasun deklarazioak erromantikoagoak? Euskeraz!
- "Leike dozu" edo "al dozu"? "Al dozu".
- Martins-ak edo Kanperak? Kanperak.
- Telebistako programarik gorrotatuena? "Contacto con tacto".
- Eta gustokoena? "Dr. Livingstone, supongo".
- Klaseak emateko zutik edo eserita hobeto? Zutik.
- Zer nahiago, irakasle edo ikasle izatea? Ikasle izatea.
- Ezkondu edo elkarrekin bizi? Elkarrekin bizi.
- Seme bat izatekotan, zein izen jarriko zenioke? Xut, Euskal mitologiako deabru bat da.
- Abesten duzu dutxan? Bai, nik asmatutako abestiak gainera.



## BERTSOAK


## Eguraldia

Eguraldia iragartzeko bada makina bat trebe hainbat adituk zera diote lasai-lasai ta suabe: "Udaberrian ta udan egon gara hodeien mirabe, jada neguan sartuak gaude udazkenik izan gabe"

Bertso honetan deuseztatuko dut esperantza apurra nahi ez duenak sinistu ez arren ez da izango gezurra. Goibel egongo dira amonak pozik gaztea ta haurra laster baino lehen egongo baita leporainoko elurra

AINHOA OSA

# ARGAZKIGINTZA IKASTAROA



HASTAPEN MAILA  
URRIAREN 27TIK ABENDUAREN 1ERA  
ASTELEHEN ETA ASTEAZKENETAN  
7ETATIK 9ETARA  
MATRIKULA: 1000 PTA

IZENEMATEAK: GAZTEENTZAKO INFORMAZIO BULEGOAN TFNOA: 77 00 65

# Arrasate, n

**Arrasate musika klasikoaren hiriburua bihurtu dela dio jendeak. Ez da gutxiagotarako; Errusiako Orkestra Nazionalaren eta Ivo Pogorelich pianistaren bisitek oihartzun handia izan dute Euskal Herri osoan. Arrasaten muxu truke jo dute. Datorren igandean Kiev-eko Irrati eta Telebista Orkestrak joko du Goikobalurekin batera. Zer ari da gertatzen?**

Herria pentagrama eta bibolinen artean murgilduta dago azken egunotan. Amaia antzokia zenetik, orkestra handien bisitak berreskuratzen ari dira, eta bazen ordua, Arrasatek betidanik izan baitu hezkuntza musikal aberatsa. Arrasate Musikal, bertako akordeoi orkestra eta orkestra sinfonikoa, Goikobalu eta azken honen harrobia, San Frantzisko ikastolako abesbatzek asko lagundu dute kontzertu hauek posible izan daitezen.

## **PROTAGONISTEI ESKERRAK**

Dena den, Eduardo Klausen Zubiriarekin sor handia daukagu. Donostiar honek txikitatik izan du musikarekiko bokazioa, baina sekula ez du lortu profesional izatera heltzerik. Musikarekin sor bat duela uste du eta horregatik, bere bizi osoa eman du eta ematen du



## **Musika klasikoaren zaletasun handia**

hain ospe handiko orkestrak Euskal Herrira ekartzeko. Berari esker, Gasteizen, Bilbon eta Arrasaten izan da orkestra hau. Ivo Pogorelich ordea, boluntarioki etorri da Arrasatera, duela 8 urte emandako kontzertu benefikoa hala aginduta.

Amaia Antzokia gainezka zegoen. Jende asko zutik, halere merezi izan zuen. Musikoak ezenategira irten bezain laster hasi ziren txaloak, baina Mikhael

Pletnev zuzendaria irten zenean, txaloen burrunbada jasanezin ere bihurtu zen Amaian. Tchaikovskyren Romeo eta Julieta obraren notak aidean dantzatzen hasi bezain laster, publikoaren aurpegietan ikusi ahal izan zen kontzertu hura ahaztezina izango zela. Pogorelichek obra bakarra jo zuen. Ez zuen jende guztia asetu, ez abileziarik ez zuelako, Prokofiev-en obraren zailtasunagatik baizik. Publiko arteko pianujoleek izugarri inbidiatu zituzten esku eta behatz arin haiek,

baita obraren ejekuzio perfektua. Hiru obrak jotzen bukatu zutenean, entzulegoaren txaloei gehiago eskatu zuten, noski, "bis" bat jo behar izan zuten.

Haiek bukatu baino lehen hasi zen jendea txaloka. Errusiarrei ere barretxo bat atera zitzaion. Jendea zutik eta "Bravo!" ka. Errusiako Orkestrak, Pogorelich eta Mikhail Pletnev zuzendariak, 10eko puntuazioa. Entzulegoak 11koa.



Goikobalu eta Kieveko Orkestraren kontzertua gorde nahi baduzu...

**ATBk grabazioa egingo dizu**

Eskatu azkar zure kopia 77 08 15 Tfnora dei eginez







## Goikobalu Abesbatzaren erronka

Igande honetan, hilak 24, Kiev-eko Orkestra Sinfonikoak Beethovenen 9. sinfonia joko du Goikobaluko ahotsekin batera. Luis Ignacio Ruiz de Alegriaren zuzendaritza-pean, bide polita egiten ari du Goikobalu azken urte honetan. Zuzendariaren gaitasun musikalaria eta kantarien enpeinuari esker, abesbatza honek arrakastak besterik ez ditu lortu 1989an sortu zenetik. Donostiako Musika Hamabostaldia zabaldu zuten "Rachmaninoven Bezperak" obrarekin eta orain Beethovenen 9. sinfoniarekin datozkigu. Oso ardura handia dakar hain konplexutasun eta ospe handiko sinfonia hau abesteak, baina arrazoi berarengatik, ilusio handia ere bai. Goikobalu Abesbatza errepertorio sinfonikoralean bidea zabalduz doala esan daiteke behingoz.

Kiev-eko Orkestra Sinfonikoa 1929an sortu zen eta Ucraniako formazio kultural garrantzitsuenetako bat da. Gaur egun V. Gnedachek zuzentzen du, nahiz eta aurretik beste batzuk ere egin duten. Ukraniako irrati eta telebistan orkestra honen 10.000 grabazio baino gehiago daude.

## Octav Calleya

# "Entzuleak musikaren mezua sentitu behar du"

**Octav Calleya Kieveko ITB Orkestra Sinfonikoaren zuzendari gonbidatua da. Errumanoa da, baina 14 urte daramatza Malagan, bertako orkestra zuzentzen. Oso ondo hitzegiten du gaztekeraz aitona espainola zuelako. Asko hitzegiten du eta bitartean, eskuak batutaren erritmo berberarekin mugitzen ditu.**

— **kontaiguzu laburki zure karrera musikala:**

— Historia musikala oso luzea da, baina beti egiten dugu topo musikarekin instrumentu bat edo beste jo nahiz abesbatza batean abestuz. Nire oinarrizko instrumentua bibolina da eta tira, formazio musikala osoa

egin dut. Errumanian hasi nintzen, gero Vienako akademia famatuan aritu nintzen eta... ikastaro asko egin dut ospe handiko irakasleekin. Baina zuzendari gazte batek zuzendari finkoaren papera lortzen duenean esaten da arrakasta lortu duela. Alde horretatik, nik 14 urte daramatza "Ciudad de Malaga" orkestra zuzentzen, baina Filipinasen, Malasian, Brasilen eta hemen, Europan ere izan naiz orkestrak zuzentzen.

— **Komunismoaren aurketa dela eta, zer nolako egoera dago orain orkestrentzat?**

— Oso egoera zaila da, zeren errezesio ekonomikoa dela eta, estatuak ezin ditza orkestren gastuak gaineratu. Orkestrek beren al-

detik finantziatzen ikasi behar dute eta hau ere oso zaila da. Gainera, mendebaldeko edozein lan eskeintza etortzen zaien bezain laster, alde egiten dute eta honek arazo larria ekartzen du ekialdeko nazioentzat eta musikoen emigrazioa pobrezia ekar dezake. Bestalde, normala da alde egitea, edozein egoera izan daiteke ekialdekoa baino hobea eta. Bolshoi Balle-tarekin gauza bera gertatu da.

— **Ze iritzi duzu Euskal herriko entzulegoari buruz?**

— Ezin dizut hori zehazki esan, ez dakit. Behin baino gehiagotan izan nahiz hemen zuzentzen baina...ez dakit zer esan! Kuestioa ez da entzulea musika baizik: Musika ona bada, orduan entzuleak erantzun ona izaten du, bestela ez. Musika bakoitzak mezu bat eraman behar du, Bach-en, Beethovenen edo gaur egungo musika modernoaren mezuak desberdinak dira eta musika egiten dugunok mezu hau zabaltzen jakin behar dugu. Ondo egiten badugu, entzuleak musika ulertu eta entzuteaz gain, sentitu egiten du. Euskal herrian beti izan dut erantzun ona, hemengo entzulegoa oso aditua dela uste dut.



## Gida Komertziala

Zuk ere agertu nahi baduzu,  
dei egin 77.08.15 Tfnora

ARKO: ARRASATE KOMUNIKABIDEAK



ARRASATE




• ESAERA ZAHARRA •

*“Indartsuenaren  
arrazoia da beti  
onena”*

LA FONTAINE

• JEROGLIFIKOA •



Zer gertatu zaio Sam beltzari?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10						
11					12	
		13			14	
15	16		17			
18						19

J. B. AGORRIA

**Horizontala** 1. Arrasateko kalea, Al-daigain azpian. 6. Araban azaldu den indar politikoa. 8. Mea ateratzen lan egiten du. 10. Zarpail. 11. Afrikako errepublika. 12. Iso. 13. Zakatzetatik hartzen du arnasa. 15. Esnatu aurretik. 17. Artaburuak ematen duen laborea. 18. Ekilibrio. 19. (Ald.) Errepikatuz, gorotza.

**Bertikalak** 1. Amakoi. 2. Narra. 3. Lore mota. 4. Alkondarak. 5. Aldakatik be-launeraino. 6. Itsasoan ugari. 7. Aitajaunak. 9. (Ald.) Bizkaiko udala. 12. Motiboa. 14. Kanpo. 16. Txakur.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Ez zaizkizu eskuak izorratuko egiten duzun lan gutxiarekin.

**Taurus** Zure burua Jainkotzat daukazun arren, ezer ez dakien pertsona arrunta zara.

**Gemini** Ez duzu diru faltarik izango. Edonon topatuko dituzu bost mila pezetakoak.

**Cancer** Zuk besteei egin dizkiezun medeak itzuliko dizkizue.

**Leo** Kontutan hartu mundu honetan larrosa politenek ere arantzak dituztela.

**Virgo** Zure buruarekin horrela jokatzek ez dizu ezertarako balioko.

**Libra** Agure zahar bat dirudizu gauza guztiengatik kekuka hasten zarenean.

**Scorpio** Ez ahaztu zein lagunuen urtebetetzea den. Eskertuko dizu zorientzea.

**Sagitaris** Beti etxean egotea ere ez da batere ona. Komeni zaizu haizea hartzea.

**Capricorn** Katu beltzak ez dizu zorte txarrik ekarriko eta ezta ezkerreko hankarekin jaikitzeak ere.

**Aquarius** Igandean, sekula ahaztuko ez duzun afari handi bat izango duzu.

**Piscis** Askatasun gehiegi ematen dizute daukazun adinerako.

# BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

## Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

· LORENTZO ASKASIBARREN GOMENDIOA ·




Umetatik perretxikotan dabil Lorentzo, eta azken 32 urte hauetan astean birritan joaten da perretxiko sasoian Urbiara. Perretxikoe-kin arazorik ez izateko, intoxicazio-arriskua ebitatzeko, hauxe da bere gomendioa: "perretxikotan, sota-caballo-rey: txaltxatue, urrezperretxikue, gibelurdi-ne, korostue eta onguek. Hortik urten ezkerro, antzeko asko dau, eta peligosue da. Gero, euri asko einddekuen, ez jatie hoba. Kontaminazi-ñue, urak emundakue da, ez perretxikuek berak daukelako". Jateko, "olixue, berakatza eta kipulie, eta politto-politto sutan euki".

· PROGRAMAZIOA ·



- 24 Igandea**  
9.30etan  
Mondragol.  
10.00etan  
Astebete
- 25 Astelehena**  
1.35etan  
Mondragol saioaren errepikapena.  
8. 8.30, 9etan  
Berriak.  
9.30etan  
Mondrasport  
10.00etan  
Gauko pelikula: "Batman"
- 26 Asteartea**  
1.35etan  
Mondrasport  
8. 8.30, 9etan  
Berriak  
9.30etan  
ATBketan lehiaketa.  
10.00etan  
Gauko pelikula: "Telebista, XX. mendeko Zientzia".
- 27 Asteazkena**  
1.35etan  
ATBketan lehiaketa  
8. 8.30, 9etan  
Berriak.  
9.30etan  
Tertulixan.  
10.00etan  
Gauko pelikula: "Dirty Dancing"
- 28 Osteguna**  
1.35etan  
Tertulixan-en errepikapena.  
8.8.30,9etan  
Berriak  
9.30etan  
Bakarka. Gonbidatua: Begoña del Teso, zine kritikaria.  
10.00etan  
Gauko Zinea: "Asterix Galiarra"
- 29 Ostirala**  
1.35  
Bakarka saioaren errepikapena.  
8.8.30,9etan  
Berriak  
9.30etan  
"Astebete". Mikel Irizarren eskutik.  
10.00etan  
Gauko Zinea: "Hamaseigarrean aidanez"

· KOMIKIA ·



· SOLUZIOAK ·

**JEROGIFIKOA**  
Putzura bota dute Ku-Kux-Klane-  
Or.  
Aitonak 9. Ea. 12. Zioa. 14. At. 16.  
Dalia 4. Aitorrak 5. Izerrak 6. Ur. 7.  
**Bertikak** 1. Amazulo. 2. Lera. 3.  
Orka. 19. Ka.  
Zo. 13. Arrain. 15. Lo. 17. Artoa. 18.  
Meazart. 10. Artoie. 11. Zaire. 12.  
**Horizontalak** 1. Aldai. 6. Ua. 8.  
**GURUTZEGRAMA**




· ARTEA ·  
Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak,  
Margoak  
Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95  
ARRASATE

# IBIL ZAITEZ GOI MAILAN

Martxan jarri auto baten benetako balioak.  
Martxan jarri ekipamendurik apartena.  
Martxan jarri segurtasun neurri erosoak.  
Martxan jarri Opel Vectra bat. Martxan.

**300.000** Pezeta\*  
**BITARTEKO  
DESKONTUA**



\*Stock-ean dauden autoentzako promozioa hilabete honetan.

**OPEL** 

**Z A I N G A U Z K A Z U**

**TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Guipuzkoa)  
Erakusketa **ARRASATEN**: Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86  
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako kontzesionaria  
Zerbitzu Oficiala ARETXABALETAN

**TALLERES NORTE**

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPEL AUTO DENDA OFIZIALAK. DENBORAREN PODERIOZ ONENAK.